

# GUaiXE.eUS



## Sakanako eskaintza zabala eskura

>> 5

Igandean goizaldean **ordu aldaketa**, 03:00etan 02:00ak izango dira



## Irakasleak Sakanaz janzten

>> 9/16



Askapenako auzipetuak lan internazionalista defenditu dute

>> 8



Sakanako Herri Lasterketa bihar Urdiainen

>> 11

Osasungintza euskalduntzeko, elkarlanean lanera

>> 7

Sakanako lau irakurle taldeak elkartzen hasi dira

>> 15

# ANARI

Urriak 31, larunbata - 20:00etan  
Altsasuko Iortia kulturgunean

ANTOLATZAILEAK: **Mank** SAKANAKO ALTSASUKO UDALA



berria ren eskutik

Sarrerak: BERRIAN (BERRIAlagunek) urriak 27 arte. Deitu: 943-30 43 45 ra. Iortian bertan eta Interneten: [www.iortiakultura.com](http://www.iortiakultura.com).

Aurretik, 10 € (BERRIAlagunek 8 €) / Egunean, 12 € (BERRIAlagunek 10 € - txartela aurkeztuta)

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Inhar Ongay ZORIONAK**  
saltseriko!!! 5. urte!!  
Jaso muxu potolo bat Iraia, Oier eta izebaren partez!



**Jurgen Balda Anso**  
Bat, bi... eta hiru!! ZORIONAK rubio!! Dagoeneko 3 urte bete ditu gure bihurriboak. Segi irrifar polik horrekin. Mila muxu Ekhi, Mattin, aitatxo eta amatxo.



**Enai ZORIONAK** potxolo!!  
Urte bat beteko duzu.  
Muxu pila bat aiton-amonaren partez.



**Enai**  
Gure etxeko txikiak urte bat beteko du.  
ZORIONAK polita!!  
Muxu potolo bat familia guztiaren partez.



**Irati Igoa Reparaz ZORIONAK** Irati aurtien biandu xamar gaizte hurrengo urtien ezta pasatuko muxu haundi bet denon partez.



**Urritz**  
Zortzigarren urtebetetzean ZORIONAK etxeko txapeldunari. Ondo-ondo ospatu etxeko guztien partez.

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideak:**

**3,50€**

## lastailak

# 23-29

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Liguori abesbatza.** Lastailaren 24an, larunbatean, 19:30ean (meza ondoren) Irurtzungo elizan.

**Disel opera band.** Lastailaren 24an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

**Ploc...ploc...plik.** Lastailaren 25ean, domekan, 17:00etan eta 18:15ean Olatzagutiko kultur etxean. 0-4 urtea arteko haurrendako. 40 plaza saioko. **Pasadas las 4.**

**Mundu magikoa.** Lastailaren 23an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan. 16 urtetik gorakoendako. **Txan magoa. Doan.**

### Antzerkia

**Nómadas.** Lastailaren 23an, ostiralean, 22:00etan Irurtzungo kultur etxean. **La llave maestra.**

**Insatisfechas.** Lastailaren 24an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Fyx distribuciones.**

**La gran aventura.** Lastailaren 25ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Marcel Gros.**

### Zinema

**Fuerza mayor (Turist).** Lastailaren 23an, ostiralean, 21:45ean eta lastailaren 25ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ma ma.** Lastailaren 23an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 25ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

### Irteerak

**Euskaraz bizi nahi dut eguna.** Lastailaren 25ean, igandean, 10:00etan Irurtzungo plazatik. **Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topagunea.**

### Mendi irteerak

**Zuriza-Oltzako oihana.** Lastailaren 25ean, igandean, 6:00etan Olatzagutitik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Suances, Besaiaiko bide berdea.** Lastailaren 25ean, domekan, 6:00etan Altsasuko autobus geltokitik. 42,5 km. **Mank eta Barranka txirridulari taldea.**

### Erakusketak

**IV. Arte Azoka.** Azaroaren 8ra, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **ARTEbide.**

### Literatura

**Arimen maisua, Irene Nemiroskyrena.** Lastailaren 29an, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Etxarriko irakurle taldea.**

### Tailerrak

**Psiko-estimulazioa etxean.** Lastailaren 27an, asteartean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Laura Moreno** neuropsikologoa. **Josefina Arregi** klinika.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 23an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 25ean, domekan,



Igandean jende ugari pasatu zen Arte Azokatik.

20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Etxarriko aukera berdintasuna batzordearen batzar irekia.** Lastailaren 28an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko

udaletxean.

**Etxarriko ingurumena lanak batzordearen batzar irekia.** Lastailaren 29an, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko udaletxean.

# Ostiralero SAIOA

9:30ean

Gaurko gaiak:

- Lierni Galarraga Lekuona
- Errigóra
- Josune Azpiroz

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Eneida



## &gt;&gt; Arakil

**Plazaolarendako Europako Bide Berdeen bikaintasun saria**

Bide Berdeen Europako Elkarteak (AEVV-EGWA) bikaintasuna eta ekimen eredugarriak aitortzeko hiru sari banatu zituen aurreko ostiralean. Belgikako Namur hirian Plazaola Turismo Partzuergoak bikaintasunaren 2. saria jaso zuen. Haren buru Natalia Azkonak jaso zuen saria. Patzuergoko kide da Arakilgo Udala.

Bide Berdeen Europako Elkarteak "bide hauen ezaugarriak ongien integratzen dituen eta euren balore espezifikoengatik eredugarriak diren Europako bide berdeak" saritzen ditu horrela. Eta Plazaolaren kasuan partzuergoa sortu zenetik egindako lana eta izandako pertseberantzia aitortu dio; baita inguruko udalen onurarako Plazaolako bide berdea egokitzeko eta haren proiektioan eta turismo garapenean egindako lana ere.

Bestalde, Maitena Ezkutari Nafarroako Gobernuako Turismo Zuzendari izendatu zuten irailean eta hura ordezkatzeko Plazaola Turismo Partzuergoak egindako deialdi publikora 14 pertsona aurkeztu ziren. Etxarriarra postuan ordezkatu duena Gustavo Ortiz de Barron da; astearteaz geroztik ari da lanean.

## SAKANA

**Hartu eta eman, Errigora**

**Nafarroak hegoaldeko 15 ekoizleren produktuz osatutako saskiak azaroaren 8ra arte eska daitezke. Etekinak Lodosa eta Sartagudako ikastolak, Erriberako AEK eta Sortzenek D eredua Nafarroa osoan zabaltzeko ekimenak bulkatzea bideratuko dira**

Kontsumo arduratsuaren ideian oinarrituta, Nafarroako hegoaldeko 15 nekazarien kalitatezko produktuekin kutxak osatu eta zuzenean saltzen ditu Errigorak. Kutxa bakoitzak 50 euro balio ditu eta kutxa bakoitzaren %25 Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari bideratzen zaio. Hori horrela da kutxak osatu eta banatzeko auzolan erraldoia egiten dutelako Zazpiak Bat harreman sareak, Sortzenek, AEKk, Ikastolen Elkarteak eta Errigorak. Denen artean egia bihurtzen dute kanpainaren leloa: *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka.*

Joan den urtean Euskal Herriko 200 herritan izan ziren Errigorako banaketa puntuak eta 12.000 kutxa salduz 160.000 euro lortu ziren. Sakanan ere oihartzuna izan zuen kanpainak 412 eskaera egin baitziren. Laugarren urtez, prest daude eskaera puntuak. Azaroaren 8ra arte egin



Errigorako antolatzaileak, ekoizleak eta onuradunak aurkezpenean.

**Kutxan zer?**

Ardo beltz botila, litro erdiko oliba olio birjina estra botila, melokotoia almibarrean, orburuak, potxak, karduak, mahats zukuak, almendrak, pikillo piper ontzi txikia, pikillo piper ontzi handia, zainzuriak, melokotoi marmelada eta pikillo piper untapana.

daitezke eskaerak bai Sakanako 20 tokitan bai [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)

**Eskutik eskura**

Izen hori du Errigorak otsailean eta maiatzean sustatzen dituen kanpainak. Aurrenekoan olioak, bigarrenen kontserbak eskuratu daitezke, ekoizleen jatorrizko prezioan.

bidez. Saskiak jaso eta ordaintzea azaroko azken bi asteetan egingen da.

**Eskaera puntuak**

Herria	Tokia
Irurtzun	Pikuxar
Irañeta	Elkartea
Uharte Arakil	Anaiak taberna
	Mendikoa Kafetegia
Arruazu	Ostatua
Lakuntza	Aliprox
	Tania arraindegia
	Bittori
Arbizu	Karrika taberna
Etxarri Aranatz	Udaletxeko estalopean
	Kaxeta Liburu-denda
	Portuko Okindegia
	Andra Mari Ikastola
Bakaiku	Elkartea
Iturmendi	Aizkozar Elkarteak
Altsasu	Itsasi euskaltegia, AEK
	Biltoki Taberna
	Portuko Okindegia
	Iñigo Aritza Ikastola
Olatzagutia	Barandi taberna

**Hiru proiektutara bideratuko da dirua**

- Lodosa Ibaialde eta Vianako Erentzun ikastolak bizirik irauteko ezinbesteko duten elkartasun ekonomikoak indartzea.
- Erriberako AEKren ekonomia egoera arintzea, beka fondoa handitzea eta zabaltzea eta sustapen kanpaina garatzea.
- Deredua Nafarroa osoan zabaltzea bilatzen duten ekimenetara bideratuko du Sortzenek.

**Domu Santu Eguna 2015**

**izARTE** Bertan ekoiztutako eguzkiloreekin egindako zentroak

Lore bizia eta moztua  
Zentru eta konposizioen erakusketa zabala

Urriak 26 - azaroak 1  
9:00 - 20:00

Isasia industrialdea (negutegia) Altsasu  
948 467 947 / 637 443 987 / 670 063 093  
[jardineria.izarte@gmail.com](mailto:jardineria.izarte@gmail.com)

Oraindik  
zuen begiak  
argitzeko  
moduko  
hainbeste  
gauza dago  
egiteko

Enkarguak urriaren 26a baino lehen ordaintzen badituzu  
**%5<sup>en</sup> deskontua**

**loreoa**  
lore eta belardenda  
948 46 74 26 | San Juan 52  
685 72 21 12 | 31000 Altsasu

**BERRITASUNA:**  
Eguzkiloreekin egindako lore konponketak

[www.floristeriaorea.net](http://www.floristeriaorea.net)

**Goiko LOREDENDA**  
ALTSASU  
Gartzia Ximenez 33

**Aukera eta preziorik onenak!**  
Lore sorta, zentro, konposizio, krisantemo eta loredun landareak

Urriaren 24<sup>etik</sup> azaroaren 1<sup>era</sup>  
8:00<sup>etatik</sup> 20:00<sup>etara</sup> **ZABALIK**

ENKARGUAK:  
948 564 260 / 610 098 595



Aingeru Mikeo

astekoa

## Fikziozko egoera batean

Fikziozko egoera batean, zeinetan herritarrak ahaldundu diren, albiste buru bat izan liteke 'Atera da Yolanda Barcina Nafarroako presidente ohia zigortzen duen epaia, kargu publikoetan politikari putre moduan jokatzegatik'.

Leporatutako faltak ugariak izan ziren, eta hona hemen haiengatik Barcinak jasotako zigorrak: lehenengoa, jarrera nartzisista

eta handiustea azaltzea, eta mugarik gabe agintekieriaz jokatzea. Horregatik, apaltasunarena den kolore moreko maindirosil batez estalita, hilabete batez egunean sei orduz Iruñeko Gaztelu Plazan jendaurrean egon beharra; bigarrena, enpresa txiki eta ertainen kontra eta kanpoko multinazionalen alde sutsuki jardutea, halaber, zerbitzu eta ondare publiko-

akesku pribatueta uztea. Horregatik, bere ondasunak bahitu, bertako ekonomia sustatzeko planetan erabiltzeko; hirugarrena, 'krisiaren' kudeaketan behartsuenen kaltetan, elite ekonomikoaren alde lotsagabeki aritzea. Horregatik, bost urtez astean hamar ordutan behartsuenen aldeko auzolanetan aritu beharra; laugarrena, Nafarroan berezkoa

den euskal kulturaren, Olentzeroren eta Gaztelu Plazako bezalako kultur ondarearen kontra etenik gabe aritzea. Horregatik, bost urtez astean hamar ordutan kultur ondarea berreskuratzeko auzolanetan aritu beharra; bosgarrena, ate birakariak baliatuta, egindako mesedeengatik 200.000 euroko soldata onartzea. Horregatik, jarduera profesiona-

leko dirutzatik bost urtez gutxieneko soldatetik goitikoak bahitu, behartsuenen alde erabiltzeko.

Herritar ahaldunduen epailetza horrek zigor hori ereduazkoa izatea nahi luke, ez baita onargarria herritarren zerbitzurako eta onerako aritu beharrean, norbere interesen eta elite ekonomikoaren alde aritzea, herritarrei eskasia eta kalte mingarria eraginez.

## barrutik kanpora

Azkar iritsi nahi baduzu bakarrik joan zaitez.  
Urrutira iritsi nahi baduzu aldiz, taldean joan zaitez

Azken urte hauetan hainbat eta hainbat enpresetan antolaketa eredu guztiz birmoldatu da. Garai berri hauetan enpresen antolaketa aldatu egin da. Gehienetan beste biderik ez dagoelako. Mundua aldatzen den heinean, enpresak ere aldatu egiten dira eta horren adibide nagusia Google enpresa amerikarra da.

Maiatzean Laszlo Bockek "La Nueva Formula de Trabajo" liburu publikatu zuen, eta bertan,

Googlelek pertsonak nola kudeatzen dituen aipatzen da. Laszlok argi uzten digu enpresa baten baliabide garrantzitsuena berau osatzen duten pertsonak dela. Enpresako langileen antolamendua 3 taldetan banatzen dute bertan: %20a talentu askoko pertsonak dira, %70 balorazio altukoak eta %10 hobetu behar duten pertsonak.

Google eredu horizontala duen enpresa da eta bere planteamen-

duak ikuspegi zabala du. Eredu honekin langileen errendimendua eta efizientzia handitzen doa taldearen errendimendu eta efizientzia handitzen doan heinean. Langileak beraien lider eta zuzendarien konfiantza dute eta hauek Google markaren enbaxadore bihurtzen dira, beraien familia eta gizartean efektu progresiboa sortuz.

Google eredu talde lanean oinarritzen da. Langile bakoitza baka-

rra da eta bakoitzak taldeari ematen dizkion ezagutza eta esperimentziak oso garrantzitsuak dira. Horrela sortzen baitituzte jakintza anitzeko talde eta enpresak.

Taldean lan egiteko aspektu garrantzitsuak aipatzen dizkigu Laszlok:

- Zure taldea ezagutu. Pertsona bakoitza ezberdina da.
- "Ni"-tik "Gu"-ra.
- Eskerrak ematea doakoa da.
- Feedbacka eman.

• Lider gisa dituzun hutsunak onartu eta zuzentzen saiatu.

• Enpresa kideak erabakien parte sentitu behar dira.

• Taldean Komunikazioa, komunikazioa eta komunikazioa behar da.

• Gauzak egitearen "zergatia" azaldu ezazu.

• Taldekideekin harreman informalak mantendu itzazu.

**Sakantzen Sarea**

## hara zer dien

# Erne Europatik datorzkigun mezuekin!

Europar Batasuneko Estatu eta Gobernuetako buruzagiak, Bruselan bilduta, besteak beste, migrazioez eztabaidatzeko. Edo: Turkia, Egipto edota Tunez bezalako lurraldeak Europara datozten pertsonen gehiengoa jasotzeko nola egin; "etorkin ekonomikoendako" Europa nola itxi; eta deportazioak gehitzeaz eztabaidatzeko.

Errefuxiatuekiko adierazi duen elkartasun irudia erabili nahi du Europak milaka eta milaka

pertsona deportatzeko palanka gisa. Hau da:

• Migratzaile ekonomikoak errefuxiatuen aurrean. Migratzaileak ere egoera larri eta bortitzez ihesi doaz, askotan bidean bizia utziz. Europa arduratzen da errefuxiatu eta etorkinen arteko aldea nabarmen teaz. **Eta Nazioarteko Giza Eskubideen (NGE) 13. artikulua?**

• Lurralde seguruez: Asilo eskubidea nork eskatu mugatzeko, Europa "seguruak" deitzen

dituen lurraldeen zerrenda osatzen ari da. Hala, Siria edo Iraketik ez datozen pertsonak ezingo dute babesa bermatzen dieten eskubidera heldu. Zentzugabekeria galanta. **Non gelditzen da NGE-n 14. artikulua?**

• Itzulera politiken eraginkortasuna hobetzeaz: Deportazioak. 2015. honetan 400.000 pertsonen baino gehiagok eskatu dute asiloa, deportatuak izango dira, bai jatorriko lurraldeetara baita Europak akordio bilateralak

dituen lurraldeetara: Turkia edo Maroko, adibidez. Eta deportazioa praktikatzeko ez duten lurraldeak zigortuak izango dira. Eskerak aztertze zentroak ere sortu nahi dira, non batetik asilo eskubidea duten pertsonak sailkatuko diren eta bestetik deportatuko direnak. **NGE-n 9. artikulua?**

• Mugak indartzea. Adostasuna erabatekoa.

• Berrartzea eta negoziazioak hirugarren lurraldeekin. Lagun-

tza ekonomiko eta bisen ordainetan deportatuak direnak berrartzeko akordioak. **GIZAESKUBIDEAK???**

• Larrialdietarako laguntza Afrikan. Kontraesan galanta: kooperazioa aurrekontuetan ikaragarriko murrizketa baimendu duten Europako buruek, larrialdietarako 1.800 miloi eurotako fondoa erabiltzea hartu zuten bere gain.

**Bego Zestau, Sakanako Immigrazio Zerbitzua**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Garzia Mauleon  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus  
**ADMINISTRATIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

## SAKANA

# Sakanako Gida etxez etxe

ibarreko zerbitzu eta establezimenduen eskaintza zabalaren berri ematen dute bai paperezko bertsioak baita [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida) atariak ere

Bierrik fundazioak argitaratutako 2015-2016 Sakanako gida komertziala ibarrean banatzen gaur hasi dira eta egun gutxiren buruan despidituko da banaketa. Sakanako etxe guztietan eta gidan bertan parte hartzen duten bezeroek jasoko dute hurrengo egunetan. Guztira Sakanako Gidaren 8.500 ale banatuko dira etxeetan.

Gida eskutan hartuta erabiltzaileak ibarreko zerbitzuei, enpresei, dendei eta autonomoi buruzko informazio argi eta eguneratua jasoko du. Egunerokoan

## Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo edizioan edo [www.guaixe.eus/gida](http://www.guaixe.eus/gida) atarian sartu nahi dutenek 948 564 275 telefonora hots egin edo [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus) edo [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus) e-posta helbide-  
etara idatz dezakete.

## Sarean

Paperean jasotako informazioa [guaixe.eus/gida](http://guaixe.eus/gida) web helbidean ere eskuragarri dago. Beraz, Sakanako enpresa, komertzio eta bestelako enpre berri telefono mugikor, tablet eta ordenagailu bidez kontsultatu daiteke ere. Paperean bezala Interneteko euskarrian sailka eta azpisailka antolatuta da gida. Sarean, gainera, establezimendu bakoitzak bere orria du zeinetan helbidea, telefonoa, e-posta eta web orriaren berri ematen den. Mapa batean haren kokapenaren berri ere ematen da. Beraz, gidaren loturan klik egin ondoren negozioaren sailkapenaren edo zuzeneko bilaketaren bidez opatu daiteke intereseko establezimendua.

behar den informazio praktikoa hain zuzen ere. Eta, aldi berean, Sakanan dugun ekonomia-ehunaren aniztasunaz eta establezimenduen ugartasunaz jabetzeko baliagarria ere bada gida. Haie-



Sakanako Gida 2015-2016 etxeko buzoian jasoko dute sakandarrek.

tan erosiz Sakanan bizi eta lan leloa gauzatzen dugu. Batetik, herritarren arteko harremanak sustatzen direlako. Eta, bestetik, herrietako merkataritza sarea osasuntsu mantenduz herriei

bizia ematen zaielako.

Sakanako Gida ez da Bierrik fundazioak asmo horrekin aurrera daraman ekimen bakarra. 2012az geroztik BelexeGuaixe txartela indarrean da. Fundazio-

aren babesle diren 1.550 sakandarrek ibarreko 90 establezimendu ingurutan egunero abantailez gozatzeko aukera dute. Eta, aldi berean, Sakanako euskarazko hedabideen alde egiten dute.



## Azpiroz: «eremu publikoan laguntza txakurren erabiltzaileek arazorik ez izatea nahi dugu»

**Bocalan Biak Bat elkarteak eremu publikoan laguntza txakurrak dituzten eskubideen inguruko sentikortze kanpaina abiatu du**

Altsasun egoitza duen Bocalan Biak Bat elkarteak sustatu zuen Nafarroako Laguntza Txakurren legea, Nafarroako Parlamentuak ilbeltzaren 27an onartu zuena. Josune Azpirozek gogorarazi digunez, “aurrerapauso handia izan zen. Ordura arte itsuen laguntza txakurrak besterik ez zuen espazio publikoetan sartzeko eskubidea. Lege horrek eskubidea orokortu eta aukera berdintasuna bermatzen die behar bereziak dituzten beste pertsoneri. Adibidez, gorpildun aulkian dauden pertsonak laguntzen dituzten txakurrak”.

Espazio publiko edo erabilera publikoa duten espazioetan sartzeko eskubidea dute laguntza txakurrak legea onartu zenetik, esaterako: liburutegi, taberna, jatetxe, hotel, osasun etxe, eskola... “Guedonon sartu gaitezkeen lekuetara sartu daitezke laguntza txakurrak. Haien beharra dutenei lagun-

tza tekniko bat ematen dietelako. Pertsonen gaitasun baten luzapena da txakurra. Inori ez zaio buruan sartzen gorpildun aulkian dagoen bati hura kanpoan uzteko”. Animaliek bai etxean bai espazio publikoan pertsoneri autonomia bermatzen dietela nabarmendu du Azpirozek.

### Sentsibilizazioa

Legea onartu ondoren bere araudia garatzea falta da. Baita herritarrek eta zerbitzuetako ardura-dunek horren berri izatea ere. Horregatik, Bocalan Biak Bat elkarteak *Ezagutu nazazu, laguntza txakurra naiz* sentikortze programa martxan jarri du. Azpirozek jakinarazi digunez Sakanan, Altsasun, eta Iruñerrian lan egiten dute. Hiru esparruei eraginen die programak. Ikastetxeak, “komunitateak jakin behar du eta haurrek, poliki-poliki, laguntza txakurrak eta haien eskubideak normaltasunez hartu behar dute”.

Administrazio publikoekin batera, ostalaritzako eragileekin ere lan egiten dute sentsibiliza-



Altsasun egoitza duen Bocalan Biak Bat elkarteak sustatu du Nafarroako Laguntza Txakurren Legea.

zio kanpainen. Elkarteko kideen azken helburua gizarte guztiari laguntza txakurren eskubideen berri ematea da. Hitzaldi, tailer eta hainbat ekintzaren bidez emanen dute horren berri. “Txakur batekin joan ahal zaizkiela jakin behar dute eta batzuk eta besteek zein eskubide dituzten ere. Horrekin

batera, benetako laguntza txakurra dela jakiteko zer eskatu dezaketen azaltzen da”.

Asteartean Altsasuko osasun etxean izan ziren elkarteko kideak. Legea azaldu eta haien lanean izan dezakeen eragina azaldu zieten. Azpirozek esan digunez, zentroko profesionalek “legea ez zuten

ezagutzen eta zituzten dudak argitu zituzten. Halako egoera baten aurrean zer egin behar duzun dakizunean tolerantzia eta errespetu jarrera izatea errazagoa da”. Orain Altsasuko Udalarekin ari da lanean elkarteak, udalaren zerbitzuetako profesionalei legearen berri emateko.

## » Arakil

## Azpeitia ezagutzeko irteera

Arakilgo udazkeneko kultur agendaren barruan programatua dago arakildarrak Azpeitira eramanen dituen txangoa. 30 bat arakildarrek eman dute izena. Bihar, 9:00etan abiatuko dira. Handik jaitsi eta Euskal Trenaren Museoari bisita egingen diote eta lurrin makina duen tren batean bidaiatzen dute. 14:00etan bazkaltzeko hitzordua dute, gero Azpeitia ezagutzeko parada izanen dutelarik. 18:00etan Arakilerako bueltako bidea hartuko dute.

## Egitaraua

## » Azaroak 7, larunbata.

## Haurren jolas eguna

**16:00etan** Puzgarriak, txokolate-jatea, zirko tailerra, ginkana... Etxarrengo frontoian.

## » Azaroak 21, larunbata.

## Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna

**19:00etan** Con ojos de tortuga, helduendako ipuin kontalaria. Etxarrengo elkartearen.

## » Azaroak 28, larunbata.

## Egun musikatua

**19:00etan** Arakilgo abesbatzaren kontzertua, Hiriberriko elizan.  
**22:00etan** Edoarrekin musika afaria, Txitera elkartearen.

## » Abenduak 4, ostirala

**17:00etan** Inside out, Del Reves, Izurdiagako elkartearen.

## » Etxarri Aranatz / Urdiain / Olatzagutia / Ziordia

## Burundarrak baleontzia ezagutzera

Ziordiarrek larunbatean eta urdiaindarrak domekan Pasai Donibanera joanen dira

Albaola itsasfaktorian pixkanaka-pixkanaka itxura hartzen ari da XVI. mendeko San Juan baleontziaren errepika. Sakanako haritzekin egiten ari diren eraikuntza lan hori ikusteko asmoz Etxarri Aranatzko, Urdiaingo eta Ziordiko udalek astebururako irteera bana prestatu dute. Museoaren aurrean izandako luizi bategatik Trintxerpetik itsasontzian iritsiko dira Albaolara. Etxarriarrak eta ziordiarrek bihar joanen dira, etzi urdiaindarrak. 50 etxarriarrek hartuko dute Pasai Donibanerako bidea. Albaola bisitatu aurretik nahi dutenek Pasaiako badia txalupatik ezagutzeko aukera izanen dute. Lanak bisitatu ondoren bazkaldu eta arratsaldea libre izanen dute.

Behin baleontziaren lanak zertan diren ikusi ondoren, ziordiarrek Pasai San Pedron barnako bisita gidatua izanen dute. Hura despeditzean hirugarrenez itsasontzia hartu eta Pasai Donibanera pasako dira hura ezagutzeko. Bazkaldu ondoren, etxera bueltatu aurretik arratsaldea libre izanen dute. Adin guztietako 65 ziordiar joanen dira bihar, udaleko kultura batzorde parte-hartzaileak

## Baleontziak olaztiarretik ere baduelako



**Pasai Donibanen San Joan baleontziaren eraikuntza ikusteko irteera antolatu du udalak; azaroaren 15ean izanen da.**

Ternuan urperatutako XVI. mendeko San Juan Baleontzia egiteko Sakanako haritzak erabiltzen ari dira Albaola itsasfaktorian. Erabiltzen ari diren zura horren zati bat Olatzagutiko Egamuneta parajetik atera zen. Eta, hain zuzen, biak ezagutzeko irteera bana anto-

latu du udalak. Azaroaren 14an, larunbatarekin, herriko hariztira bisita gidatua egingen da 10:30etik 13:00etara. Hurrengo egunean, azaroaren 15ean, domekan, txangoa izanen da Pasai Donibanera. 9:00etan abiatuko da autobusa eta 14:30ean bueltatuko da. Bi jardueretan parte hartzeko udal txekuan eman behar da izena hilaren 30 baino lehen. Txangorako 7 euro ordaindu behar dira.

antolatutako irteerara. Domekan, berriz, Albaola bisitatu eta Pasai

bazkaltzeko asmoz 109 urdiaindarrak autobusa hartuko dute.

## SAKANA



Gustura entzun zituzten azalpenak.

## Enneco barrutik ezagutzen

Etxarri Aranatzeko eraikitzen ari diren Enneco, haritzaren memoria interpretazio parkea 30 bat sakan-darrek bertatik bertara ezagutu zuten larunbatean. Patxi Abasolo historialaria gidari zutela Baskonia-Nafarroako Erreinuako memoria historikoa berreskuratzeko egitasmoa nolakoa izanen den tokian bertan ezagutzeko eta lanak zertan diren jakiteko aukera izan zuten.

[www.enneco.org](http://www.enneco.org)

Egitasmoaren inguruko informazioa ematen duen web gunea.

## » Altsasu

## Jende ugari ferian

Feriak jende ugari erakarri zuten Altsasura domekan. Plazan eta Gartzia Ximenez kalean salmenta postu artean gogoko jakien bila jende asko ibili zen. Haietako askotan jateko mokaduak ere eskaintzen zituzten. Baita edatekoa ere batzuetan. Denetariko produktuen artean zer erosi izan zen eta poltsak eskuetan ikusten ziren.

Txikienek zaldigainean ibiltzeko aukera baliatu zuten Zubeztia plazan. Handik gertu, Otadiko Kristo Deuna kalean, ardi taldeak zeuden ikusgai. Ferialeku kaleak, berriz, joan den urtean zaldi-azienda hartu zuen eta aurten behiak eta astoak izan dira protagonista. Zaldiak, behorrak, pottoak eta biho-



Kale nagusiak jendez lepo bete ziren. Zaldi lehiaketak ikusmin handia sortu zuen.

kak Zelai kalean izan ziren. Jendeak azienda egokiago eta segurtasun handiagoarekin ikusteko aukera izan zuen han eta abeltzainendako garraio lanak ere erraztu ziren.



Sari banaketan Javier Ollo Martinez eta Mari Carmen Otaegi udaleko kideekin batera Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzenda-

ri nagusi Ignacio Gil izan zen. Haietako sariak emateko, aurretik Javier Garzia de Albizu (Eulate) Gonzalo Azanza (Lezaun) eta Carlos Arza (Altsasu) epaileek euren

## Sariak

## Hazitarakoak

1. Javier Lanz Alegriarena, Lakuntza.
2. Patxi Legarra Zubiriarena, Zuhatzu
3. Jose Javier Arraiza Mezquirizena, Uharte A.

## Behorrak pottoarekin

1. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri A.
2. Patxi Agirre Arratibelena, Etxarri A.
3. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.

## Pottorik gabeko behorrak

1. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri A.
2. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.
3. Jose Javier Arraiza Mezquirizena, Uharte A.

## Bi urte bitarteko pottoak

1. Jose Angel Rekalde Larunberena, Zuhatzu.
2. Vicente Ollokiegi Ollakindiarena, Etxarri.

## Bizpahiru urteko pottoak

1. Juan Aldabarena, Satrustegi.
2. Sat Gonzalez Percaz, Ziordia.

## Bi urte bitarteko bihokak

1. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri A.
2. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.

## Bizpahiru urteko bihokak

1. Javier Lanz Alegriarena, Lakuntza.
2. Sat Gonzalez Percaz, Ziordia.

## Altsasuko abere onena

Iñaki Larrea Percazena.

lana egin zuten. Zaldi-azienda guztia sakandarra zen, arabar batena salbu.

## SAKANA

## Makina bat sakandar Nafarroa Oinezen

Sakandar ugarik Elizondo arteko joan etorria egin zuten igandean. Nafarroa Oinezen parte hartu zuten guztiek, batzuk boluntario gisa lanean, asko eta asko ospakizunean parte hartuz. Tartean, 600 pertsonendako paella egiten eta zerbitzatzen aritu ziren sakandarrak. Egun berezia izan zen lantalde horrendako, bihotz eta arima

izandako Benigno Mendia hilberri zegoelako. Mustutze ekitaldian Nafarroako Ikastolen Elkarte Pello Irujok gogoan izan zuen. Paella zerbitzatu aurretik Nafarroa Oinezeko antolakuntzako Marta Igoak Mendiaren familiari eta koadrilari Benignoren irudia zuen koadro bana oparitu zien, eta aureskua dantzatu zitzaizen.



Paella egiteko lanak egin zituztenek talde argazkia atera zuten Benigno Mendia gogoratzen zuen pankartaren aurrean.

## » Altsasu



Faktura elektronikoaren erabilerari buruzko azalpenak ematen.

## Udala faktura elektronikoaren bultzatzaile

Altsasuko Udalak deituta, herriko 30 bat enpresatako ordezkariak Iortian elkartu ziren asteartean. Javier Ollo alkateak azaldu zienez, "udalak bere egin du faktura elektronikoaren erabilera orokortzeko eta bultzatzeko erronka. Jaki-tun gara faktura elektronikoaren

ezarpenak onura handiak ekar-tzen dituela, bai udalaren beraren barne kudeaketarendako, baita udalaren hornitzaileendako ere". Ollok adierazi zuenez, faktura elek-tronikoarekin ordaintzeko proze-durak hobetu eta administrazio-kudeaketa arinagoa eta eraginko-

rragoa izanen da.

Aurkezpenean Animsa enpresa publiko nafarreko bi ordezkari ere izan ziren. Altsasuko Udalean eza-rritako on-line aplikazioaren eta informazio gunearen berri eman zuten. Udalarekin harremana nola izan behar duten ere azaldu zieten.

## » SAKANA

## La Burundesak klinika babestu du



Patxi Goikoetxea, Javier Otxoa, Iosune Lopez de Goikoetxea eta Javier Fonseca.

Josefina Arregui klinika psiko-geriatrikoan gaixoak batetik bes-tera mugitzeko askotan gurpil-dun aulkiak behar dira. Erabile-raren erabileraz materiala ere apur-tu eta ordezkatu beharra izat-en da. La Burundesako Javier Otxoak eta Javier Fonsecak Kli-nikaren Lagunen Elkartearekin harremanetan ziren eta behar horren berri izan zutenean 10 gur-pildun aulki oparitzea erabaki zuten. Aurreko ostiralean jaso zituzten aulkiak zentroko gizarte langile Iosune Lopez de Goikoetxe-ak eta Klinikaren Lagunen Elkar-teko buru Patxi Goikoetxeak.

Bestalde, asteburuan Altsa-sun izan diren bi kirol ekitaldi-tan jasotako dirua Josefina Arre-gi klinikaren lagunen elkartearen-dako izan da. Onddo lasterketan parte hartzeko izen emateagatik ordaindutakoa izan zen bat. Bestea, erremonte jaial-dian Koteto Ezkurraren saski baten zozketatik ateratakoa. Guz-tira 2.600 euro. Goikoetxeak esan digunez klinikako gimnasioa hornitzeko balioko du diru horrek. Horrela, fisioterapeutak gaixoe-

## Etxea psiko-estimulaziorako tokia

**Argibideak, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.**

Psiko-estimulazioa etxean; esti-mulazio kognitiboa lagunduko duten jokabide eta proposame-nak. Izenburu hori duen tailerra zuzenduko du heldu den asteartean Laura Moreno neuropsiko-logoak. Josefina Arregi klinikako profesiona-bera, zentroak antolatutako prestakuntza saioen barruan emanen ditu argibideak Morenok. Klinikak antolatu duen hitzaldi eta tailer zikloarekin bereganatu duen jakintza sakan-darren artean partekatu nahi du. Horrela, demenzia gaitzak kaltetutako pertsonen eta haien familien bizi kalitatea hobetu nahi dute. Saioak, batez ere, gaitz horien prebentzioan eta zaintzan interesa duten pertsonen zuzen-duta daude.

kin lan egiteko beste baliabide batzuk izanen ditu.

## »



Sakanako Euskalgintza Batzordeko zenbait kide, artxiboko irudian. ARTXIBOA

## SEBek osasungintza euskalduntzeko lana egingen du

Sakanako Euskalgintzaren Batzor-deak (SEB) ibarrean osasun zerbit-zuen euskalduntzea lortzeko lan egitea erabaki zuen ostiralean. Horretarako, eragile euskaltzaleek elkarrekin aritzeko plangintza eginen dute. Langintza horretan Etxar-ri Aranazko osasun etxearen inguru-an aurtengandako ibilbidea ere du gisa erabiliko dute.

SEBek ikasturtean barna biz-pahiru bilera egiten ditu eta batzar artean erabakitakoaren kudeaketa egiteaz hiru kideko talde eragile bat arduratzen da, boluntariorik badago handitu daitekeena. Talde eragile hori osasungintzan euskarak aurrerako urratsak emateko plangintza egiteaz arduratuko da.

## Eredua

Jakina denez, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Etxar-ri Aranazko Udalak eta euskalgintzako hainbat eragilek Osasungin-

tza Euskaraz lantaldea osatu zuten. Udaberri akaberan bulkatu zuten kanpainaren bidez herritarren 592 sinadura jaso zituzten. Sakandar horiek hiru eskaera babestu zituzten: osasun etxeko lanpostuak plangintza organikoan euskara eskakizuna izan dezatela; dagoeneko lanean ari diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea eta idatzizko euskarriak ere euskaraz egotea bermatu dadila.

Gainera, ikastetxeetako orientatzaileek kanpainarekin bat egin zuten, Etxarriko Osasun etxean Emakumeen Arreta Zerbitzua baitago. Handik, ikastetxeetarako sexu heziketa programa garatzen da. Bere eremuan D eremuan ikasten dute ikasle gehienak eta orientatzaileek adierazi dutenez, "sexualitatearen heziketa euskaraz eskaintzea eskubidea izateaz gain, oinarritzko behar bat da eskola komunitatearentzat. Kalitatezko Hezkuntzaren

garapenak eta bermeak hizkuntzaren, euskararen, betekizuna bere baitan behar du, berezkoa du". Arartekoak herritarren eskaerak aintzat hartzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

## Segi

Osasungintza aparte, merkataritza, turismoan, lan munduan eta aisialdian euskararen alde eragitea aztertu zuten SEBeko bileran. Ikasturte honetan Sakanan osasungintza lantzea erabaki bazuten ere, etorkizunean gainontzekoetan ari-tzea ez zuten baztertu.

Bileran Etxarri Aranatz eta Altsasuko EHEko, Bierrik fundazioko, Aizpea Irurtzungo euskaltzaleen topaguneko, AEKko, Uhar-te Arakilgo eta Arbizuko euskara zinegotziak, Maite Aldaz eta Maitane Intxaurrek elkartu ziren. Elkarri ikasturte honetarako zein asmo dituzten jakinarazi zieten.

**Ana Santano**  
Bularra ez da soilik elikadura  
Edoskitzerako amendako laguntza  
LASTER!  
Haurrentzako masaje tailerrak  
Azala ukitzea sendagairik onena  
635 811 106  
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Enkargatu zure testu liburuak  
bai  
Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak  
Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**sorgiñak**  
taberna  
LAKUNTZA  
948 576 357

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik  
**mariaeugenia**  
Arrainak  
Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

## SAKANA

# Askapenaren kontrako epaiketaren lehen astea joan da

**Polizien lekukotzekin despiditu dira aste honetako auzi saioak. Astelehenean ekinen zaio epaiketari defentsaren lekukoaren testigantzekin, azaroaren 2an despidituko da**

Askapenako bost kideren kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi nazionalen astelehenean hasi zen. Defentsaren galderei erantzunez deklaratu zuten aurreneko bi egunetan auzipetuek. Hitza hartzen azkena Aritz Ganboa de Migel arbazuarra izan zen, asteartean. Lan internazionalistaren defentsarekin batera ETaren, Ekinen edo Xakiren esanetara aritzea ukatu dute epaiketan auzipetuek. ETaren agindupean zegoen inongo koordinakundetan ez zutela parte hartu berretsi zuten. Ez haiek ez Askapenak ETaren jarduna inoiez zutela justifikatu edo babestu gaineratu zuten.

Askapena "erakunde herritar" gisa definitu eta beste hainbat eragile gisa Euskal Nazio Askapen Mugimenduko kide dela azaldu zuten epaitegian. Internazionalismoa sektore gisa ulertzen ez zutenez, Askapenak eragile askorekin gai zehatzen inguruan aitzeko harreman puntualak zituela argitu zuten. Eta azpimarratu Askapenaren bidez internazionalismoa, "joan-etorriko elkartasuna", landu dutela. Hau da, "ber-



## Epaiketa Madrilen salatuko da

**Hilaren 31n, 18:00etan, Atotxa eta Sol arteko manifestazioa deituta dago** Madrilgo Euskal Herriaren Lagunak eta Madrilgo Librekin taldeek deituta egingen da Askapenaren kontrako epaiketa salatzeko mani-

festazioa, *Euskal Herriaren aurka epaiketa politiko gehiagorik ez lelopean*. Sakanako Askapenak hara joateko autobusak antolatu ditu. Ohiko tokietan eman daiteke izena (16 euro, 10 langabe eta ikasleak). Sakanatik 11:00 aldera

abiatuko dira Madrilerantz. Asmo berarekin, Askapenaren kontrako epaiketa salatu eta bost auzipetuei elkartasuna adierazi nahian, 25 bat pertonek kontzentrazioa egin zuten Altsasuko udaletxe aurrean astelehenean.

dintasun egoeran egiten den harremana da internazionalismoa, inposiziorik gabea".

### Akusazioak

Akusazioaren iritziz, erakunde internazionalista "ETaren men-

deko egitura" izateagatik eta hari laguntzea leporatuta bost auzipetuek 6 urteko espetxe zigor eskareri aurre egiten diote. Horretaz aparte, Askapena, Askapeña konpartsa, Elkar Truke eta Herriak Aske elkarteak legez

kanpo uzteko eskaera egin du Pedro Martinez Torrijos fiskalak. AVT eta Dignidad y Justicia elkarteak herri akusazio gisa ari dira. Haien iritziz, Askapenak ETA-Ekin eta Batasuna osatutako egituraren irizpideak jarraitzen

zitzen, organo komun baten parte zirela eta ETaren eta nazioarteko eragileen arteko harremana bideratzen zutela.

Bestalde, astelehenean Nafarroako Parlamentuko Bozemaileen Batzordeak Askapenako bost kideei elkartasuna adierazi zien. Aldi berean, lan internazionalista egiten duten erakunde eta pertsona guztiei babes azaldu zien. Asteartean Espainiako Kongresuan izan ziren auzipetuek Amaiur, ERC, BNG eta IUko diputatuekin elkartu ziren. Guean Vallecasen harrera egin zuten.

### Lekukotzak

Auzipetu bakoitzak Askapenaren egindako ibilbidea azaldu du epaitegian. Ganboak gogorarazi zuen ahizpak Chiapasko brigadan parte hartzeak piztu zuela bere interesa eta 2001ean joan zen hara. Ordutik 2008 edo 2009ra arte Askapenaren aritu zela azaldu zuen, harremana eten ez bazuen ere. Arbazuarrak Argentina, Palestina, Uruguay, Kuba eta Venezuelarako brigadak antolatu zituen. Brigadek "giza kapital garrantzitsua" ematen dutela nabarmendu zuen. Internazionalismoaren bidez mundua aldatzeko nahia azaldu zuen.

## SEEren ikastaroak, atzera ere, bertan behera

**Udaberrian gertatu bezala Sakanako Enpresarien Elkartearen Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzarik gabe gelditu da**

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) jakinarazi du udazkene-rako iragarriak zituen hiru ikastaroak bertan behera gelditu direla. Enpresarako ingelesa, Excel programa eta inteligentzia emozionalari buruzko ikastaro bana zeuden iragarriak. SEEtik jakina-

razi dutenez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza faltak ikastaroak bertan behera uztea ekarri du. Prestakuntza zerbitzua garrantzitsutzat jo du elkarteak eta heldu den urtean hura eskaintzen ahaleginduko dela aurreratu du.

SEEk maiztzean jakinarazi zuen arrazoi beragatik zazpi ikastaro bertan behera gelditu zirela. Langileendako doako prestakuntza

eskaintzeko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen zuen SEEk. Baina Nafarroan prestakuntzarako dirua banatzeko akordioak eta Espainiako Gobernuak onartutakoak kontrajarriak dira. Azken horrek langileen trebakuntzan aitzeko enpresa eta prestakuntza zentro guztien konkurrentzia askea sustatu nahi du eta administrazio publiko guztiei eragiten die.



## Fernandez de Garaialde Nafarroko Aralarren zuzendaritzan

Aralar Nafarroa alderdiak VII. konferentzia politikoa egin zuen Iruñean larunbatean. Aralarko kideek Nekane Perez aukeratu zuten Nafarroako koordinatzaile izateko. Aldi berean, zuzendaritza berritu zuten. Alderdiko herrialdeko zuzendaritzan segituko duena Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Sala da. Altsasuarra parlamentuko taldearen ordezkaria da zuzendaritzan.

Bazkide egin

**GUaiXE**  
OSTIRALERO BUZOIAN

**-%5**  
DESKONTUA DISEINU ZERBITZUAN

**-%10**  
DESKONTUA ESKELETAN

**sariak**  
HILABETERO ZOKZETA

**-%25**  
DESCRABAZIOA ERRENDA AITORPENEAN

**-%12**  
DESKONTUA ZORION AGURRETAN

**85**  
KOMERTZIOTAN DESKONTU ETA ABANTAILAK

www.guaixe.eus | 948 562 107



**MOTZEAN**  
**Kontzejuko buruak abenduaren 20an aukeratuko dira**

Abenduaren 20an, Espainiako haur-teskondeekin batera, Zuhatsu eta Lizarragabengoako herritarreuren kontzejuko burua aukeratuko dute.



**Euskaraz bizi nahi dut eguna**

**Igandean, 10:00etatik 14:00etara, ospatuko da**

Aizpea, Irurtzango euskaltzaleen topaguneak Euskaraz bizi nahi dut eguna antolatu du etzirako. Min-tzakide Familian ekimenarekin

bat egin eta hitzordua plazan jarri dute, 10:00etan. Hura bi mendi ibilaldiren abiapuntua izanen da. Bata motza, umeekin egiteko modukoa, eta bestea luzeagoa. Behin ibilbideak osatuta plaza izanen da, atzera ere, elkargunea. Han indarra berreskuratzeko pin-txo batzuk dastatzeko aukera izanen da.



**Nonerabili**

**IRUBIDE JATETXEA**

**ALTSASU**

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

**SAKANA OPTIKA**

**ALTSASU**

%15eko deskontua graduatutako beturreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

**XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA**

**ETXARRI ARANATZ**  
%5eko deskontua, bonu, gimnasio eta jardueretan izan ezik.

**HOSTOAK LOREGINTZA**

**LAKUNTZA**

20 €tik gorako erosketetan %8ko deskontua, garaiko landareetan izan ezik.

**NUEVA IMAGEN**

**ALTSASU**

%10eko deskontua.

**ARRUAZUKO OSTATUA**

**ARRUAZU**

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

**LOGURE**

**ALTSASU**

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

**ML MODA**

**ALTSASU**

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

**NEREA ILEAPAINDEGIA**

**LAKUNTZA**

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

**MARTXUETA**

**IRURTZUN**

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai



**SAKANA**

**Irakasleek Sakanako natur eta kultur ondarea ezagutu dute**

**Gizakien lehen aztarnak, trikuharrien garaia, erromatarrena, Erdi Aroko despolutuak eta basoaren eta itsasoaren arteko loturaz ikasi dute irakasleek. Bide batez, landutako gaiak ikasgeletara nola eraman hausnartu dute**

Sakanako Plan Estrategikoan hainbat arlotan Sakanan duguna hobeto ezagutzeko beharra agerian geratu zen. Hezkuntzari loturiko hausnarketetan, Sakanako haur eta gazteek gure kultur eta natura ondare ezagutzak hobetzeko beharra agerian geratu zen. Sakanako herri eskola txikietako eta ibarreko irakasleriaren prestakuntza arduradun Lierni Galarraga Lekuonak azaldu digunez "eskoletatik behar eta gogo hori zegoen. Sakanako 9 eskolek, Sortzenekin batera, ibarreko curriculum lan-tzen hasteko egitasmoa genuen". Bide askoren bidegurutzera.

Gaiari heltzeko irakasleendako prestakuntzarako ikastaroak aukera egoki jo zituen, eta hura zehazteko Galarragak zenbait gairen inguruan oso aditua den jendea elkartu zuen: Mikel Markotegi (Ezpileta, historia eta arkeologia elkarteko lehendakaria), Maria Flores (irakaslea), Ainara Martin (Lehen Hezkuntzako irakaslea), Nekane Zubizarreta (ikastola) eta Iker Manterola (Sakanako Garapen Agentea). Galarragak Ezpileta elkar-teak emandako laguntza eta "elkarlanerako erabateko borondatea" nabarmendu ditu.

Maila guztietako irakasleendako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) ikastaroa prestatu zuten eta beste arlotako profesionalak gonbidatu zituzten. Mendi irteeretan oinarrituzuten ikastaroa: "irakasleentatik lekuetara joan eta ikusteko, ikutzeko, aztertze eta eztabaidatzeko behar bat ikusten nuen. Beste



Mikel Leozek (Albaola) zuhaitzak itsasontzien piezak izateko nola prestatzen ziren azaldu zien irakasleei. UTZITAKOIA

modubaten beharra". Eta arrakasta izan zuen: 30 plaza zeuden eta 70 irakasletik gora eman zuten izena. "Eta beste askok ez zuten izenik eman lekurik ez zegoela ikusten zutelako". Udaberriko beste ikastaroa prestatzeko oraingo partehartzaileen balorazioaren zain dago Galarraga. "Halakoak berriro etorriko direla uste dut, bai".

**Bost saioak**

Irakasleak bost asteazkenetan elkartu dira, 15:30etik 18:30era. Guztira 15 orduko prestakuntza jaso dute. Urbasako kanpinean izan zen aurreneko prestakuntza saioa, lehen gizakiari lotua, irailaren 16an. Benjamin Botanz Sakanako geologia arituzitzaia. "Interesgarria zen beti Sakanaz ari ginelako; ateratzen zituen fosilak, aipatzen zituen lekuak... bitxikeria guztiak Sakanarekin lotutakoak ziren. Hori zen guretako berri-tasuna". Bestalde, Jesus Garcia Gazolazek (Vianako Printzea elkarteko arkeologia arduraduna) suharriekin, hantxe bertan, historiaurreko tresna bat egin

ziren. Suharriak non aurkitu daitezkeen erakutsi zien Markotegi. Josefa Insaustiren bilduma interesgarria ezagutzeko aukera izan zuten ere.

Astebete geroago Markotegi-ekin Uharte Arakilen elkartu ziren. Sakanako despolutua, Done Jakue bidea, komunalen kudeaketa eta Bernoako galtzada izan zituen hizketa-gai. "Oso saio aberatsa izan zen, jendearendako oso berria. Agiriko despolutua ere sorpresa galanta izan zen" azaldu digu Galarragak.

Irailaren 30ean Uhartetik Aralarra igo ziren. Jon Zufiaurrek (natura eta basoaren interpretazio teknikaria) Sakanako basoaren interpretazioa egin zuen. "Andia eta Aralar aldeko basoak zein ezberdinak diren bereizten zituen; daukagun basoa gizakiak eskua sartu eta landu delako dugula azaldu zuen, gaur egun basoa ikutu behar ez den ideia baitugu eta irakasleak konturatzeko hori ez dela horrela eta gure arbasoek lan handia egin zutela". Burunda-ko ordenantzen liburua aipatu zen

(azken saioan irakasleei banatu zitzaie). Josean Mujikak (EHU-ko historia irakaslea eta arkeologoa), berriz, bertako trikuharriez, ibarreko arkeologiaz eta Burdin eta Brontze Aroez hitz egin zuen. Zamartze bera izan zen topalekua lastailaren 7an. Oihan Mendok (Zamartzeko arkeologoa eta Garesko alkatea) Bordele eta Astorga arteko galtzadaz, erromatar eta baskoien arteko harremanaz eta baskoiek erromatar garaian... horiez aritu zen.

Aurreko astean, lastailaren 14an, despeditu zen ikastaroa. Mikel Leozekin (itsas ondarean teknikaria. Albaola kultur fundazioa) Altsasuko Dantzalekun elkartu ziren. "Itsasoa eta barrualdea guk uste baino lotuagoa egon zirela azaldu zigun. Gaur egun baino gehiago. Zuhaitzak itsasontzien piezak izateko nola prestatzen ziren azaldu zigun. Seriean lan eginen zela eta basoaren kudeaketak diru asko ematen zuela garai hartan. Kontatu zigun Ingalaterran urperatutako barku baten zura Altsasukoa zela".

**Plataforma eta lan taldea**



Galarragak aitortu digunez, kultura eta natura ondarearen berri eskolara eramaterakoan "eskola bakoitzaren planak, moduak, maila edo etapabakoitzean oso ezberdinak. Oso ezberdinak daude Haur edo Bigarren Hezkuntzan lantzea. Aukera sorta zabala dugu aurrean". Dagoeneko Interneten baliabideen plataforma bat sortzen hasi dira.


"Kontua bidea egiten hastea da", dio Galarragak, "gauza ez da aurtentzer bait egin eta hor uztea. Luze-ra begirako bide eta jarrera bat direla ikusten dugu. Beraz, Hainbat mailatan landu ahal izanen da: irteeren bidez, edukien bidez, eskolara jende aditua eramanez, eskolatik irtenez... Jarrera hori sortuz: gurea baloratu eta Sakanatik eta

Sakanaz aritzeko". Prestakuntza arduradunak "interesgarri" jo du gaiaren inguruan irakasleentzako lantalde bat sortzea: "pik-kanaka, nik uste, hortik jo behar-ko dugula". Izan ere, "irakasleek ez dituzte bakarrik materialak nahi. Hari horri nondik tiratu egin ahal izan nahi dute. Horretan izan dugu zeregina".

GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



### Juan Mendinueta Lazkoz

Gazte asko artzantzan,  
gero lantegietan,  
lanean ta bizitzan  
bat adina bazan.  
Patxadako gizona  
mahaiaren bueltan.

Aiyo ta eskerrik asko Ostatuko Juan.

Resu, Joxe Mari-Mertxe, Lourdes-Joxe Mari eta Elorri

### Benigno Mendia Goikoetxea

Ez adiorik, Benigno.  
Gurekin gelditzen zara.



Aitziber Elkarte



### Juan Mendinueta Lazkoz

Egoneran lasaia,  
biherrien serio,  
entzuteko re asko  
zenuen balio,

horrelakoa zinen  
Ostatuko rubio.  
Besarkadak gureei ta  
zuri adio.

Konde-zaharran itxekuek

Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era**  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora

Oroigarriak  
egiten  
ditugu

Nahi duzun  
argazki  
eta testuarekin

**GUIAIXE**  
KOMUNIKAZIOA  
948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.eus

GRUPO  
Funeraria  
**VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en).

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

### Erosi / saldu

**SALDU**  
Kanarioak salgai Olaztin. Telf 606 43 74 38

### Higiezinak

**LOKALAK**  
ERRENTAN EMAN

Lizarragako San Clemente festetarako **Azi Iturri** elkarte hartzeko enkantea. Azaroaren 19an, eguerdiko 14:00etan izanen da elkarte bertan. Gutxieneko dirua 600 €.

Lakuntzako Kale Txiki taberna alokagai. Tel: 630 62 47 71.

### Opatutakoak

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta

ibilgailuak.

### Ikastaroak

**Psikomotrizitate saioak.** 2 eta 4 urte bitarteko haurrentzat. Ostegunetan Kattuka Haur Eskolan (Arbizu). Interesa izatekotan, hots egin 948 56 70 09ra edo [info@kattuka.com-en](mailto:info@kattuka.com-en).

### PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK

[www.kattuka.com](http://www.kattuka.com)  
[info@kattuka.com](mailto:info@kattuka.com)



**Homeopatia klasiko ikastaroa.** 8 saio. Urriaren 28an hasiko da. Asteazkenetan, Kattuka Haur Eskolan (Arbizu). Familientzat gidatua. Emaila: Konny Dieterich Voss. Interesa izatekotan, hots egin 635 75 36 65 telefonora, [www.homeopatiafamiliar.net](http://www.homeopatiafamiliar.net)

### HOMEOPATIA KLASIKOA EDO UNIZISTA IKASTAROA



### Oharrak

**Etxarriko irakurle taldea.** Lastailaren 29an, 19:00etan, Etxarriko liburategian elkartuko dira Inere Nemniroskyren "Arimen maisua" liburuz hizketatzeko.

**Odol-emaileak.** Urriaren 29an Arbuzun eta Lakuntzan, arratsaldean.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua

### JAIOTZAK

- Ariel Icardo Del Pino, urriaren 12an Irurtzunen.
- Aitor Otamendi Carravilla, urriaren 13an Lizarragan.
- Abdullah El Hessmi, urriaren 14an Etxarri Aranatzan.
- Markel Navarrete Imaz, urriaren 16an Altsasun.

### EZKONTZAK

- Asier Urizar Ramos eta Teresa

sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueran sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalaz eta

**Caldito Askargorta,** urriaren 16an Altsasun.

### HERIOTZAK

- Jose Lasa Galbete, urriaren 11n Olaztin.
- Santiago Landa Orue, urriaren 16an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

## Duatloia



### Igor Flores hirugarrena I. Urbasa Duatloian

Igandean jokatu zen, Urbasako kanpinean

Urbasako kanpinak I. Urbasa Duatloia hartu zuen larunbatean. 44 duatletak osatu zuten proba (5 km korrikan, 21,6 km bizikletan eta 2,5 km korrikan), Urbasa-Andiako paraje ikusgarrietan barna. Triatlón Santander taldeko Gorka Bizcarra izan zen azkarrena (1:04:59). Hirugarrena Igor Flores urdiaindarra izan zen (1:06:21). Sakandarrek lan polita egin zuten. Francisco Javier Gomez 7.a sailkatu zen (1:07:15), Gorka Garcia de Eulate 13.a (1:10:35), Sergio Garcia de Eulate 14.a (1:10:35), Juan Carlos Gomez 19.a (1:14:11) eta Iban Gonzalez 24.a (1:15:24). Erreleboen mailan Alatz Agirre nagusitu zen (1:06:49). Antolakuntzak ez du duatleten jaioterrietako daturik eman, eta gerta daiteke sakandarren bat aipatu gabe geratu izana.

## Erremontea

### Etxeberriak Ezkurraren tokia hartu zuen Altsasun

Erremonte jaialdi bikaina hartu zuen igandean Altsasuko Burunda pilotalekuak. Jaialdiko protagonista Koteto Ezkurra txapeldun handia izan behar zen, baina bezperan lesionatu egin zen Doneztebekoa, eta Etxeberria IV.ak hartu behar izan zuen bere tokia. Nolanahi ere, Altsasuko zaleen omenaldi beroa jaso zuen Ezkurrak igandean Altsasun, profesional mailan daramatzen 25 urte bikainengatik.

## PARTIDA LEHIATUAK

Lehenik eta behin, Remonte fundazioak Uhartelruñeko Euskal Jai Berri pilotalekuan kudeatzen duen errendimendu altuko eskolan trebatzen diren pilotarien arteko lehia jokatu zen. Rodriguezek eta Garcesek 30 eta 27 irabazi zieten Barricarti eta Olanori. Partida nagusian, aldiz, Etxeberria IV.ari eta Endikari 33 eta 40 irabazi zieten Utergak eta Ionek.

## Atletismoa



Amaia Gerrikagoitia, Iñaki Galarza, Iker Flores eta Javier Fonseca, 15. Sakanako Herri Lasterketaren aurkezpenean.

## Urdiainen korrika

**Bihar, larunbatean jokatu da 15. Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sari nagusia, Urdiainen. 17:00etan kategoriatxikiko probak izango dira eta 18:00etan proba nagusia (6,9 km)**

Urdiainen hartuko du Sakanako Mankomunitateak antolatutako 15. Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sari nagusia. Probaren antolakuntzan Mank-ek Dantzaleku Sakana klubaren, Urdiaingo Udalaren, Aitziber elkartearen eta Urdiaingo Gazte Asanbladarekin laguntza izan du. La Burundesa da babesle nagusia, Urdiaingo denda, taberna eta landetxeekin batera. Asteartean aurkeztu zuten proba Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia, Aitziber elkarteko Iker Floresek, Urdiaingo Udaleko Iñaki Galarzak eta La Burundesako ordezkari Javier Fonsecak.

### Izaera herrikoiko proba, bereziki sakandarrei zuzendua

Sakanako Herri Lasterketarekin, izaera herrikoieko lasterketa antolatu nahi du Mank-ek. Jakina, atletismoa bulkatu nahi da, bereziki krosa. "Atletismoak sustrai handiak ditu Sakanan. Hor dago, esaterako, Dantzaleku Sakana atletismo kluba, eta Sakanako herri askotan, Altsasun, Ergoienan, Iturmendi-Bakaikun, Etxarrin, Ziordian... probak antolatzen dira. Horrek Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria sortzea ekarri zuen. Bestalde, Behobia-Donostian sakandar ugari parte hartzen du. 2014an 94 partaide izan ziren. Sakanako Herri Lasterketarekin kros bat antolatu nahi dugu, guztion partaidetzara zabalik dagoena, bereziki Sakanako jendeari" azaldu zuen Amaia Gerrikagoitia. Proba urtero herri desberdinean antolatzen da "Sakanako herriak ezagutaraztea ema-

teko", antolatzaileen esanetan. Gerrikagoitia gaineratu zuenez, "probarekin gure kultura bulkatu nahi dugu, bereziki euskara. Probako alor guztietan, kartelak, elementu grafikoak, megafonia, musika eta beste, euskara bertakutuko da".

Eguraldi iragarpenak ez du euririk iragartzen eta tenperatura epelak aurreikusten dira. Horrek partaidetzaren eragina izango du. Gerrikagoitia adierazi zuenez, kategoriatxikietan 60 neska-mutiko espero dira eta proba nagusian 80 korrikalari.

### Sariak eta zozketak

Lehenengo hiru sailkatuek eta lehenengo hiru sakandarrek, gizonetako eta emakumetako, produktu loteak jasoko dituzte. Horretaz gain, lehen kadeteek, lehen jubenilek eta lehen beteranoek saria jasoko dute, eta baita lehen urdiaindarrek ere. Horretaz gain, helduen lasterketa bukatzen duten guztien artean ondoko sariak zozketatuko dira: bi pertsonendako bazkari-afariak Kaluxa tabernan, Ezti-iturri landa apartamentuan egonaldia, masajeak (Peio Goikoetxea) eta herriko produktuak. Proba bukatuta, 19:00etan, sari ematea izango da eta auzatea, plazan.

### Urdiainen antolatutako zirkuituari 3 buelta (6,9 km)

17:00etan kategoriatxikiko probak hasiko dira, Urdiaingo kaleetan burutuko direnak (aurrebenjaminak 200 m, benjaminak 400 m, kimuak 750 m eta haurrak 900 m). Kadeteak helduekin batera ariko dira, zirkuituari 2 buelta emanda (4.600 m).

Proba nagusia 18:00etan abiatuko da, Urdiaingo plazatik. Herrian barna 2,3 km-ko zirkuitua prestatu da eta 3 buelta eman

beharko zaizkio. "Gurea herri txikia da eta probako kilometroak herritik ateragabe lortzea, oso zaila. Baina guk argi genuen garrantzitsuena lasterketa gehiena Urdiaingo kaleetan barna egitea zela, korrikalariak ikus dezan zein herri polita dugun. Gainera, ikusleak gertu sentitzeak berotasuna ematen die korrikalariari" nabarmendu zuen Aitziber elkarteko Iker Flores txirrindulari ohi eta korrikalariak. Floresek azaldu zuenez, plazatik hilerriko bidea hartuko dute korrikalariak, erreperidera iritsiko dira, Magotteaux parean mendiko bide bat hartu eta herrira igoko dira, plazara heltzeko. Hiru itzuli eman beharko dira.

Urdiaingo udaletxeko Iñaki Galarzak nabarmendu zuenez, "Urdiaingo udalerako ohorea da

### Izena ematea, aurretik eta egunean bertan

Aurretik, urriaren 23ko 21:00ak arte eman daiteke izena, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) weborrian (txip horia dutenek 10 euro eta alokairuzko txip zuria dutenek 11 euro). Probaren egunean bertan, udaletxean, 15:30etik 17:30era (txip horia dutenek 12 euro eta alokairuzko txip txuria dutenek 13 euro). Gazteek eta kadeteek ez dute ordaindu behar. Kategoriatxikiko kasuan, aurrebenjaminak, benjaminak, kimuek eta haur mailakoek egunean bertan eman beharko dute izena, dohainik. Dorsalak 15:30etik aurrera jaso daitezke.

lasterketa hau gure herrian egitea. Eskerrak eman nahi dizkiegu herriko laguntzaile guztiei, proba antolatzea posible egin dutelako". Halaber, herriki zendutako Benigno Mendia izan zuen gogoa. "Sakanan asko egin duen pertsona bat aipatu nahiko genuke. Proba hau hemen antolatzea berrari omenaldi polita egitea dela iruditzen zaigu". Mendiaren alde minutu bateko isilunea gordeko da lasterketa abiatu baino lehen.

Javier Fonsecak La Burundesak halako ekimenak babesten jarraituko duela azpimarratu zuen. "Urteak daramatzagu Sakanako Herri Lasterketarekin kolaboratzen, eta halako ekimenetan gure laguntza ematen jarraitu nahi dugu, bertako herrietan eta bertako herritarrekin. Sakanako partaide sentitzen gara eta beste urte batez hemen gaude" nabarmendu zuen. La Burundesako sortzaileak urdiaindarrak dira eta hori gogora ekarri zuen.

### Sakanako Koparako baliagarria



Sakanako 15. Herri Lasterketa Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sari Nagusirako baliagarria da. Dagoeneko Kopako hiru proba jokatu dira eta horrela dago sailkapena. Emakumetakoetan Izaskun Beunza da lehena, Haizea Ramirez de Alda bigarrena eta Ginesa Lopez eta Maite Zabaleta hirugarrenak, puntutara berdinduta. Gizonezkoetan Sergio Garcia de Eulate doa buruan, Ivan Gonzalez da bigarrena eta Adur Senar hirugarrena. Biharko Urdiaingo probak eta abenduaren 8an Altsasun jokatu den Barricarteren 35. Oroimenezko Oinezko Lasterketak erabakiko dute Kopa.

## Harri jasotzea

# Harriak jasotzen ikasi nahi duzu?

Eman izena Mank-eko Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Zentro Teknikoan

Harri-jasotzeak baditu bere sekretuak eta teknikak. Indarra baino, teknika kontua omen da. Horietan trebatu nahi baduzu, Sakanako Mankomunitateak sortutako Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Zentro Teknikoak eskaintzen dizu aukera. Eskola 16 urtetik aurrerako neska-mutiko eta gazteei zuzendua dago, Sakanan edo inguruan bizi eta harri jasotze aritu edo hasi nahi dutenei.

Lanbidez Ilundain-Haritzberri baserri eskolako ingurugiro arloko zuzendaria den eta afizioz harri jasotzailea den Mikel Lasarte da Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Zentro Teknikoko begiralea. Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria ere izana da Lasarte. Makina bat urte

## Izena emateko

Izena ematea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). Klaseak euskaraz dira eta baten batek ez badaki, gaztelaniaz zuzenduko zaio.

daramatza Lasartek eskolaren ardurarekin, 2004 urtetik hain zuzen. Eskolak Irurtzungo Udalak kiroldegian utzitako gela batean ematen dira, asteartetan, 18:30etik 20:00etara, eta lastailan hasi eta garagarriera arte luzatuko dira. Ideia, batez ere, harri altxatzea gustuko dutenei bidea ematea da, euren zaletasuna garatzeko tokia, materiala eta ordu-tegi bat ematea. Jakina, jendea gogoz hasten bada eta txapelketetan parte hartu eta erakustaldiak eman nahi baditu... hori guz-



Sakanako Harri Jasotze Eskolako Mikel Lasarte begiralea harria jasotzen.

tia bideratuko dute eskolatik.

“Harri jasotzean hasteko gehiena behar dena gogoia izatea da. Gero, gorputz pixka bat izan behar da. Pertsona bat 70 kilotik aurrera hasi daiteke harria jasotzen. Indar pixka bat behar da, baina batez ere teknika asko. Izan ere

harri bakoitza ezberdina da, bakoitzak bere teknika dauka. Harri jasotzea jarraian praktikatu behar den kirola da” hori adierazi zigun Mikel Lasartek 2004an Sakanako Mankomunitatearen ekimenez Sakanako Harri Jasotze Eskola sortu zenean.

## Pilota

## Murgiondo-Nabarro eta Martinez-Flores txapeldun Altsasun

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak irabazi zituzten

Altsasuko Gazte Asanbladak Altsasuko gaztetxearen 25. urteurreneko ekitaldien barruan antolatutako Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak jokatu ziren larunbatean Altsasuko Burunda pilotalekuan. Antolatzailerak adierazi dutenez, aipatu txapelketako parte-hartzea “itzela” izan da, eta larunbateko finaletan sekulako giroa izan zen. “Oso pozik gaude erantzunarekin, txapelketa bikaina atera da” gaineratu dute.

### 36 bikote

Guztira 36 bikote lehiatu dira Biko-

tekako Pilota Goxua Txapelketan, 24 bikote 2. mailan eta 12 1. mailan. Pilotari gazteenak 15 urte zituen eta helduenek, aldiz, 38 urte. Antolatzailerak gaineratu dutenez, txapelketak interesa piztu du. “Egunero gutxienez 150 pertsona inguru egon dira txapelketa jarraitzen eta finalaren egunean 300 ikusletik gora bildu ziren Burundan”.

Larunbatean jokatu txapelketako finaletan, feriak zirenez, oraindik giro hobea izan zen. “Bi txaranga egon ziren finaletan. Horretaz gain, apustuak antolatu genituen. Bi finaletako emaitzak asmatu behar ziren, eta apustuak ferietako bazkarian eta partiden aurre-



Koldo Murgiondo eta Xabier Nabarro, 1. mailako txapeldunak.

tik jaso ziren. Urdaiazpiko zozketa ere antolatu genuen eta sekulako giroa izan zen” adierazi dute Altsasuko Gazte Asanbladaren.

2. mailako finalean Martinez eta Flores izan ziren txapeldunak, Gonzalez eta Alustizaren kontra gailendu eta gero. 1. mailakoan

Murgiondok eta Nabarrok jantzi zituzten txapelak, Mazkiarani eta Zabalori irabazi eta gero. 8 finalistek Arkangoan afaltzeko gonbitea jaso zuten saritzat eta azaroaren 14an gaztetxearen 25. urteurrena ospatzeko antolatu diren kontzertu erraldoiendako sari bana.

## Futbola

### PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

6. JARDUNALDIA

#### ETXARRI ARANATZ 1 - BETI CASEDANO 0

LAGUN ARTEA 1 - BERIAIN 1  
Gogo handiekin aritu ziren Etxarri eta Beti Casedano. Xabatek 13. minutuan aurreratu zuen Etxarri, penaltiz. Beti behin eta berriz saiatu zen, baina ezin, eta 3 puntuak Etxarrin geratu zuen. Lakuntzan, parez pare aritu ziren Lagun Artea eta Beriaín. Bigarren zatian Beriaín aurreratu zen, baina partida bukatzeko 5 minuturen faltan Anderrek berdintzea lortu zuen. Irabazteko zorian egon zen Lagun, baina markagailua ez zen mugitu.

Sailkapena >>

1. Gares	12 p
3. Etxarri Aranatz	12 p
5. Lagun Artea	10 p

Asteburuko jardunaldia

#### BURLADES - ETXARRI ARANATZ

(Igan-dean, 17:30ean, Ripagainan)

#### SAN JORGE - LAGUN ARTEA

(Igan-dean, 16:30ean, Sanduzelain)

### ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

6. JARDUNALDIA

#### ALTSASU 2 - UNIVERSIDAD DE NAVARRA 1

Denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Altsasuk. Unibertsitatekoak izan ziren aurreratu zirenak, baina bigarren zatian markagailua irauli zuen Altsasuk. Javi Guisadok eta lokinek Unibertsitatekoen atea zulatu zuten, eta Altsasuko atezain Urkijok geldialdi bikainak egin zituen.

Sailkapena >>

1. Doneztebe	18 p
12. Altsasu	5 p

Asteburuko jardunaldia

#### SALESIANOS - ALTSASU

(Igan-dean, 19:30ean, Orkoienen)

### ELOMENDIKO TXAPELKETA

B MULTZOA. 1. FASEA. 5. JARDUNALDIA

#### EGIARRETA 2 - ZALDUA 1

Bi talde arakildarren arteko lehiari Egiarreta izan zen garailea.

Sailkapena >>

1. Beriaín	13 p
2. Egiarreta	9 p
4. Zaldua	6 p

Asteburuko jardunaldia

#### ZALDUA - ELOMENDI

EGIARRETA atsedean jardunaldia du.

### Areto futbola



## Levanteri irabazi eta gero, Zaragoza hartuko du Magnak

Levanteren kontrako partidaren, Magna Gurpeak lehen momentutik izan zuen zortea bere alde. Lehendabiziko 8 minututan hiru goleko errenta lortu zuten Imanolen mutilek, Kikok, bere atean, Eseverrik eta Dani Saldisek sartutako golei esker. Handik bi minutura laugarren sartu zuen Jesulitok. Bigarren zatian Levantek hartu zuen jokoaren ardura eta 1 eta 4 hurbiltzea lortu zuen. Baina Rafa Usinek, Araçak eta Pablo Ibarrek Magna Gurpear engol festabobildu zuten eta azkenean 1 eta 7 irabazita itzuli zen talde berdea.

Sailkapen orokorrean Movistar Team da liderra (21 puntu). Magna Gurpea Xota 7.a da. Larunbatean Magna Gurpeak 11 punturekin sailkapenean 5.a den DLink Zaragoza taldea hartuko du Anaitasuna pabiloian, 18:30ean.

## 46 pilotari Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketan

Asteburuan hasiko da txapelketa eta abenduan despedituko da

Igan-dean hasiko da Iñigo Aritza ikastolako 2015eko Pilota Txapelketa. Ikastolak euskal pilota sustatzeko egiten duen lanaren barruan kokatzen da txapelketa. Ikastolako 46 pilotarik hartuko dute parte, hainbat kategoriatan. Partidak ikastolako frontoian jokatuko dira. Lehen jardunaldia igande-ean hasiko da, 17:20ean. Finalak Gabonen aurretik jokatuko dira.

### Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako 1. jardunaldia

LH3: Ainhitze Armentia - Amets Izquierdo

Xabier Olaiz - Enaitz Gonzalez

LH4: Kepa Amillano - Patxi Azpeitia

Peru Urteaga - Alain Mendia

LH5:

Hegoi Lakuntza - Iker Agudelo

LH6:

Irati Lumbreras - Ane Ojer

Oihan Guinea - Asier Solis

Lander Peral - Ander Goikoetxea

Aritz Sevilla - Aimar Lezea

DBH1:

Aritz Ulaiar - Jokin Senar

Inhar Olabide - Xabi Bengoetxea

DBH2:

Aimar Garcia - Patxi Arakama

Txomin Rubio - Oier Berastegi



## Futbola

## Sutegiko futbolari ohien topaketa



Sutegi futbol taldeko argazki bat. Egun Sutegi klubak jarraitzen du, baina ez dago helduen futbol talderik. UTZITAKOIA

## Desagertutako futbol taldeko 75 kide bilduko dira bihar

Garai batean futbol taldea zegoen Olaztin, Sutegi futbol taldea, hain zuzen. 1975. urtean sortu zen eta 18 urte inguru iraun zuen bere ibilbideak. "Erregionaleko 2. mailan lehiatzen hasi zen Sutegi. Baina Erregionaleko 1. mailara igotzea lortu zuen eta han aritu zen taldea, desagertu arte. Futbol zelaia "Alto de la via" deitzen genion tokian zegoen, Azpikokamion. Sekulako giroa egoten zen, jende pila bat joaten zen futbol zelaira" kontatu digu Alberto Landa futbolari ohiak.

## Desagerpena

Urteak pasa ahala, gauzak aldatu

ziren. "Futbol zelaia jabetza pribatukoa zen eta zesioa bukatu zenean ez zen gehiago berri. Horrela, Olaztiko udal dermioan, Arkinorruiti industrialdean, Ziordiko dermiotik gertu egin zen zelai berria. Heritik urrutiz zegoen, jendea ez zen horrenbeste zelaira joaten... eta hor hasi zen taldearen beherakada. Jokalariak bageunden, baina zuzendaritzan ere erreleborik gabegeratu ziren eta futbol taldea desagertu zen. Orduko oso oroitzapen onak ditugu eta polita iruditu zaigu Sutegi futbol taldeko jokalaria eta zuzendaritza taldeko kide ohiak biltzea, egun polita pasatzeko" gaineratu du Landak.

Topaketa bihar, larunbatean egingen dute, Olaztiko Erburua kiroldegian. 11:30ean egun areto futboleko eta futbol 8an aritzen diren Sutegi taldeko neska-mutikoen arteko partida izanen da. Ondoren, Sutegi futbol talde ohiok kideek talde argazkia aterako dute -75 jokalaria eta juntako kide ohi inguru bilduko dira- eta neska-mutikoei baloi bat banatuko diete. "Futbolari ohi gazteenak 46 urte izango ditu eta helduenak 66 inguru" adierazi du Landak. Ondoren bazkaltzera bilduko dira, Erburua kiroldegian. Garai bateko pasadizoak gogoratzeko eta argazki zaharrak ikusteko tartea izanen da bertan.

## Motoziklismoa

## Olias hamargarrena Los Arcosen

ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETAKO AZKEN PROBA HARTU ZUEN NAFARROAKO ZIRKUITUAK. OLIAS STOCK 1000 MAILAN ARITU ZEN

Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituak Espainiako Abiadura Txapelketako baliagarria zen azken lasterketa hartu zuen igandean. Juan Mari Olias Melero pilotu irurtzundarra Stock 1000 mailan lehiatu zen. Lasterketa ikusgarrian 42 pilotu aritu ziren eta zirkuituari 14 buelta eman behar izan zizkionten, 55,1 km osatuz. Javier Alvi-

zek Migel Angel Poyatosek, Raul Garciak eta Kike Ferrerrek borroka polita izan zuten, eta azkenean Javi Alvezek irabazi zuen (12:27.423), Poyatosen eta Garcia-ren aurretik. Juan Mari Olias 10.a sailkatu zen (12:39.492). Espainiako Abiadura Txapelketa, Stock 1000 mailan Kike Ferrerrek irabazi du.



Olias motor gainean, atzean aita duela.

## Automobilismoa



Arkaitz Irigoien Urbasako igoeran.

## Sakandarrak III. Ultzama Bailara Lur Eremuan

Larunbatean III. Ultzama Bailara Lur Eremua Rallya jokatu zen Ultzman. 25 ibilgailuk lortu zuten proba despeditzea eta 3 erretiratu egin behar izan ziren. Ibilgailuek Ultzman prestatutako hiru ibilbide edo eremu osatu behar izan zituzten. Azkarrenak Jose Javier Izagirre pilotua eta Eneko Gomez kopilotua izan ziren (Lancer EVO IV, 00:17:47.900). Sakandarrei dago kienez, Aitor Fernandez pilotua eta Iker Askargorta kopilotua 19.ak sailkatu ziren (Focus 1.6., 00:20:52.000) eta Oier Larrañaga eta Arkaitz Irigoien (AX GT) 23.ak (00:21:58.700).

## Atletismoa

## Onddo lasterketa arrakastatsuen

500 korrikalari inguruk hartu zuten parte 8. Onddo Lasterketan eta 36. Eskolarteko Krosean. Josefina Arregi Klinikako Lagunen Elkarterako 1.660 euro jaso ziren

Altsasuko feriekin bat eginez eta sekulako eguraldi ederrarekin jokatu zen Dantzaleku Sakana atletismo klubak hainbat babeslerekin batera antolatutako 8. Onddo Lasterketa. Onddoak jaiotzen diren paraje ederretatik barna burututako 6,6 km-ko proba hau ez da lehiakorra, ez da sailkapenik egiten; helburua basoan barna buelta polita ematea eta atletismoaz gozatzea da. Horregatik, antolatzen diren proba herrikoienena da, zalantzarik gabe. Aurten are herrikoia goa izan zen proba, parte hartzea bikaina izan baitzen: txikien kategorietan, hau da, 36. Eskolarteko Krosean, 99 korrikalari aritu ziren -aurreko urtean 138-, baina helduen 8. Onddo Lasterketan ia 400 parte-hartzaile -aurreko urtean 283-.

Aurten, lehenengo aldiz, 18 urtez gorakoei proban parte hartzeagatik 5 euro kobratu zituen Dantzaleku Sakanak, diru guztia Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkarteari emateko. Horrela, 1.750 euro bildu ziren Onddoen Lasterketan, proba buka-

eran taldeko ordezkariari eman zitzaiena, onddo saski bat eta Altsasuko feriekin lotutako produktu lote batekin bezala.

## Egun borobila

Kategoria txikiko probak Foru Plaza eta Zubeztia inguruetan jokatu ziren, goizeko 11:00etan hasita, aurrebenjamin mailatik hasita haur mailaraino. Eguerdian hasi zen Altsasuko eta Urdiaingo dermioetan barna burututako Onddo Lasterketa, besteak beste Baso Itxi eta San Pedrotik pasatu zena. Hamai-ka kolorez betetako paraje bikainetatik barna korrika egitea luxua izan zen korrikalari guztiendako.

Akaberan korrikalariak kamisetak jaso zuten opari eta Lacturale esne kaxa bat. Horretaz aparte, parte-hartzaile guztien artean 2 onddo saski eta feriekin lotutako bertako produktuez osatutako 104 lote zozketatu ziren. Antolatzaileak oso kontentua azaldu ziren probak izandako erantzunarekin. Eta baita Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkartekoak ere. "Oso pozik gaude, jendeak bikain erantzun du" zihoen elkarteko ordezkari Patxi Goikoetxeak. Jasotako dirua klinikako fisioterapia gela hornitzera bideratuko dute.



Eguraldi bikinari esker, Onddo lasterketak irudi ederrak utzi zituen.



## Objektuen bidaiarako gonbitea



Gaur, 22:00etan, Irurtzango kultur etxean antzerki zikloaren bigarren emanaldia

Llave maestra konpainiak maiatzean Iruñean eta agorrilean Txilen mustutako obra batekin heldu da Irurtzuna: *Nómadas*. Alvaro Morales Lifschitzek zuzendutako muntaketan "biltzeko materialekin eta egunero objektuekin egindako ikerketaren ondoren, eszena-hizkuntza nahasketa bat sortu da: keinu antzerkia, mugimendua, objektu eta popin antzerkia, maskara eta arte plastikoak".

Edurne Rankinek, Patxi Larreak eta Aintzane Baleztenak gorpututako pertsonaiek unibertso poetiko batean nabigatzen dute,

bizitzaren metafora bihurtzen den bidaiaren. Antzezlanean "irudimenera, bidaia oniriko bat" proposatzen digute, "bidaiatzeko akto ausartari oda bat, zaharra atzean utzi eta ezezagunean barneratze-ari". Hiru pertsonaiek euren beldur, esperantza, amets eta ilusio-etera bidaia oniriko egiten dute, "errealitatea bidaia poetiko batean bihurtuz".

Eszenatokia sortzen diren eszena poetikoetan maletak, kartoizko kaxak, kutzak eta plastikozko biribilkiak maskaretan, mugitzen diren etxeetan edota animalia fantastikoetan bihurtuko dira. Guztia zentzumenei, irudimenari eta norberaren baitan bidaiatzeko dagoen desirari zuzendutako ikuskizun batean.

## Egunerokotasunetik ihes komikoa

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Miriam Díaz Aroca eta Belinda Washington aktoreak bi lagun minen papera jokatu dute *Insatisfechas* antzezlanean Altsasun bihar, Encarni eta Mari. Biak ezkonduak daude baina euren bizitzak ez ditu asetzen. Ez zen espero zutena: poza gezur handia da, bikotekidearekin aspertuta daude eta sexua ohikeria da. Etenik gabeko antsietatean korapilatuta bizi dira eta beraien bizitza suntsitzen ari da.

Bien bizitzak alda ditzakeen erabaki bortitza hartzen dute: euren kabuz bidaia egitea. Ihes egin, haizea hartu, iragana atzean utzi eta etorkizunaren bila atera. Etenik gabeko gatazka bilakatzeko bidaia, abentura komikoa, non ametsen lekua errealitateak hartzen baitu. Baina errealitatea ez da beti atsekabea, kontrakoa baizik... Thelma eta Loiseren antzeko bidaia, Madril eta Albacete artean kokatua. Abentura komikoen duen gizonarekin egiten dute topo, haien ispilu bilakatuko dena. Sonia Gomezek eta Juan Luis Iborrak idatzia da obra eta azken horrek zuzentzen du.



## di-da >>

### PAILAZOAK

#### A-ABENTURAREN ABIA-PUNTUA

Marcel Gros domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean A-bentura handia dakar A-Itsasura clown eta pailazo kataluniarrek, pailazo baten istorioa. Gros bere unibertsoa bisita egiteko gonbitea luzatuko du eta han zilar papera, zaborrontzia, A maiuskula baten gaineko bidaia, A-itaren A-torra, mimoa, fakirra eta beste agertuko dira. Guztia A-rekin hasiko da. A A-biapuntua da. Eta Gros pailazoak A erraldoi, gorri eta bigun batekin A-zkenarainoko A-bentura A-biarazikodu Iortia kultur gunean.

### ARGAZKIAK

#### FERIAKLIK

Klik han, klik hemen. Hala ibili ziren 46 pertsona Altsasuko ferian. Guztiak Altsasuko Mendigoizaleak elkarteak antolatutako ferietako argazki rallyko parte-hartzaileak ziren. Hainbatek euren argazkiak egunean bertan aurkeztu zituzten eta beste batzuk etxetik bidaliko dituzte igandea baino lehen. Argazkiak baloratuko dituen epaimahaia azaroaren 4an elkartuko da. Epaia azaroaren 7an

eginen da publiko, 19:00etan, Iortia kultur gunean egiten den ekitaldian. Sari banaketarekin batera lehiaketara aurkeztutako argazkiak proiektatuko dira. Ferietako rallyan parte hartu duten argazkiak Altsasuko Dendarien Elkarteko erakusleihoetan ikusgai izanen dira azaroaren 9tik aurrera.

### BERTSOAK

#### SOTO TXIKI BIHURTU ZENEKOA

Altsasuko ferietako bertso-poteoan gertatu zen. Julio Soto eta Eneko Lazkoz Altsasuko Alde Zaharrean barna bertsoan aritu ziren, eta azken geldialdian gertatu zen Soto txiki bihurtzea. Une bat izan zen, Lazkoz aulki gainetik bertsoan hasi eta Soto baino altuago bihurtu zenean. Erantzuna, jakina, aulki gainetik eman zuen Sotok, "egoera onera ekarri". Bide batez, agurreko bertsoan Sotok gogora ekarri zuen ferietan egin zen aurreneko bertso-poteoan 16 pertsona zizutela inguruan eta larunbatean 126 zirela. Bestalde, Nafarroako Bertsozale Elkarteak Iruñeko Udalaren laguntzaz antolatutako Bertsoaroa zikloa martxan da. Lazkoz zikloa itxiko duen bertso saioan parte hartuko du, azaroaren 12an. Azaroaren 3rako iragarria dagoen bertso-saioko gai-jartzaile Joseba Andoni Beltza izanen da.

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Japoniako tabernak

Japoniako gizartea gure gizartea-rekiko oso ezberdina dela askotan esan dugu. Berez, arraroak direla diogu oso maiz, baina arraroak baino gehiago ezberdinak direla esatea zuzenagoa da. Zenbait arlotan zaletasun bereziak dituzte, taberna eta jatetxeetan ere. Lehenik eta behin, jakin ezazue, ez dela ohikoa taberna bakunak aurkitzea Japonian. Edatea, normalean, beste ekintza batekin lotzen dute kafetegi edo tabernetan. Janaria izaten da askotan edariarekin duten lotura, eta orduan, gure burura jatetxe hitza datorkigu. Bestetan, filia oso zehatz bat da lotura, eta hauek bai gure gizartean aurkitzea oso zaila dela.

Guretako ezagunena abesteko nahia da, eta horretarako, karaokeak dituzte. Oso abeslari txarrak izan arren, gustura aritzen dira lagune-

kin abesten, normalean karaoke-tako gela pribatuetan, edaten duten bitartean.

Beste zaletasun berezi bat, animaliekin jolasteko nahia izaten da. Hau ulertzeko, jakin ezazue Japonian ez dela ohikoa etxebizitza propioa izatea, eta asko bakarrik eta pisu alokatu txikitari bizi direla. Eta oso arrunta da ere pisu hauetan animalia izatea guztiz debekatuta egotea. Hortaz, jendeak animaliekin jolasteko nahia asetzeko, taberna mota ezberdinak daude.

Arruntena, katuekin jolasteko tabernak dira, *neko cafe* deiturikoak. Bertan katu ugari egoten da libre. Bezeroak mahai batean zerbait edaten du, katu bat beragana noiz etorriko den zain berarekin jolasteko. Katuen arreta bereganatzeko, tabernan bertan katu-janari eta jostailu ezberdinak saltzen zaizkie bezeroei, negozio borobila sortuz. Katuak alde batera utzita, animalia mota ezber-

dinak ere badaude beste antzeko lokal batzuetan. Txakurrak, untxiak, eta baita intsektuak, sugeak eta bestelako narrasti ez horren atseginak.

Esandakoa, pisu alokatuetan, askotan ezin lagunak eraman. Pisuak gela bakarrekoak izaten dira eta toki gutxi izatean ez da oso erosoa jendea biltzea. Gainera, Japoniako bulegoetan langileek ematen dituzten ordu mordoak dela eta, askotan ezin lagun berriak egin eta sozializatzeko beharra ere ase behar dute. Honetarako, taberna mota ezberdinak dituzte.

Zenbait negozio auzotan badaude tabernatxo txiki ugari, barra kaxkar bat besterik ez, non aulkian esertzeko ordaindu egin behar den. Edariak gainera garestiak dira, baina bezeroek (gizonezkoak denak) tabernarako lan egiten duten emakumeekin hitz egin dezakete. Solasaldia besterik ez, baina lanpostuetako estresak alde batera uzte-



ko eta fantasiak elikatzeko oso aproposak dira. Emakumeei ere edariak ordaintzen dizkiete bezeroek edo opariarekin. Baina kontuz, askotan mafiek kontrolatzen dituzte toki hauek eta iruzur eginez behar baino diru gehiago ordaindu behar izatea ere gertatu ohi da. Horregatik, bezero dirudun askok, konfiantzazko tokitan, beraien aulkitxo erreserbatuta daukate zenbait egunetan, beti ere neska berdinarekin hitz egiteko.

Honekin jarraituz eta ez horren ilun, badaude gazte koadrilei zuzendutako kafetegi batzuk, *maid cafe* izenekoak. Bertan, biktoriar estiloko janzkera duten neskatza poxpolinak dira zerbitzariak, eta zurekin esertzen dira edaten duzun bitartean hitz egiteko, barre egiteko zure komeriekin edo nolabaiteko empatia emateko. Haur giroan bezeroak murgiltzeko pentsatuak daude, beraien egin behar eta arazo guztiak ahazteko.



## Liguori abesbatza Irurtzunen

Larunbatean, 19:30ean, (meza ondoren) Irurtzungo elizan

Nafarroan Abesbatzak Zikloak Liguori abesbatza iruindarra ekarriko du Irurtzuneran. Jose Mari Goikoetxeak sortuzuen abesbatza 1989an, eta bera izan zen zuzendaria. Aurretik, 50 urtez, Nafarroako Haur Kantariak eskolania zuzendutakoa zen. Liguori abesbatzaren zuzendaritza lana azken aldian aspaldi ezaguna duen Jesus Mari Olite Ibirikurekin partekatzen du. Olite ere sorreratik da abesbatzako kide.

Polifoniaren genero guztiak hartuz, Nafarroan eta kanpoan 300 kontzertu baino gehiago eman ditu koralak. Liguori abesbatzak, sorreratik, Ostegun eta Ostiral Santuetan Iruñean eta Leireko monasterioan kantatzen du, hari laukote eta organoz lagunduta. Eguberrietan, berriz, Iruñeko Udalaren egitarauaren barruan, Aita Redentoristetan kontzertua eskaintzen dute urtero. Nafarroako Gobernuaren Udazkeneko Bira eta Cultur programetan parte hartu du.



## Kantu modernoan bertsio lirikoak

Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Disei opera band seikote bat da. Hiru abeslari daude taldean, baxu baritonoa, sopranoa eta tenorea. Eta haiekin batera hiru instrumentu jole (biolina, gitarra klasikoa eta akordeoia). Osagai horiekin zuzeneko musika ahots handiekin laguntzen dute. Euren talde modernoan bertsio lirikoak egitea da. Musika pieza ezagun eta egungoen moldaketa horiek publiko guztiendako gustagarri bihurtzen dituzte. Hala, Queen, Abba, Frank Sinatra, Ennio Morricone, Toni Braxton eta beste hainbaten bertsio lirikoak egiten dituzte. Taldea orain dela urte batzuk Olatzagutiko Santa Ana festetako eguerdiko kontzertu batean aritu zen eta olaztiarren gustukoa izan zen orduan.

Hileko aurreneko ostegunetan irakurritako liburuz hitz egitera elkartzen dira, 18:00etan, liburutegian. Parte hartu nahi dutenek liburutegian eman behar dute izena; dohainik da

Irurtzunen zegoen eskaerari erantzunez, 2010eko azaroan abiatu zen Irurtzungo irakurle kluba. Hilero-hilero, literatur zaleak ordu eta erdi ibilbidean batz besteko asistentzia 10-12 irakurlerena izan da. Gaur egun 10 dira. Guztiek, hilero, irakurri beharreko liburuaren ale bana jasotzen dute. Nafarroako Liburutegi Nagusiak 80 irakurle talde liburu hornitzen ditu eta, horretarako, loteak egiten ditu. Liburuarekin batera, irakurle taldeko koordinatzaileak idazleari buruzko txostena ematen die. Liburu idatzitako garaiari buruzko azalpenak eta irakurketa aberastu dezaketen datuak ematen dizkie txostenak irakurleei.

Liburu irakurri ondoren, elkartu eta irakurketarekin sortutako ideiak, ekarpenak eta komentarioak partekatzen dituzte. Saioaren koordinatzaileak, akaberan, jasotakoaren bilduma egiten du kideen ekarpenekin osatuta eta, horrela, liburu ulertzen laguntzen da. Jakina, eztabaida interesgarriak sortzen dira. Ikasturteko aurreneko topaketan bakoitzak udan irakurritakoaren berri ematen du. Hala, literatur merkaturaren sakontzeko aukera dute guztiek. Ikasturtea despeditzeko, berriz, merienda ederrarekin batera, balantzea egin eta udarako dituzten irakurgaien berri ematen diote elkarri.

## Sakanako irakurle taldeak

# Irurtzungo irakurle taldeak bost urte bete ditu



Eguna	Idazlea	Liburua
Azaroak 5	David Foehkino	La delicadeza
Abenduak 5	William Saroyan	La comedia humana
Ilbeltzak 7	Antonio Gamoneda	Un armario lleno de sombra
Otsailak 4	Judith Torrea	Juarez en la sombra
Martxoak 3	Maximo Gorki	La madre
Apirilak 7	Javier Cercas	El impostor
Maiatzak 5	Bidaia literatura	

### Koordinatzailea

Hasieratik taldea kudeatzeaz Sofia Villegas kazetaria arduratu da. Eskarmentua du, egun Nafarroako zazpi irakurle talde koordinatzen dituelako. Irurtzunen 45 eta 70 urte bitarteko gizon-emakumeak elkartzen dira. Gazteagoek ere parte hartu dute. "Taldea irekia da. Nahi denean bat egin daiteke. Beti ere, liburu irakurria izan behar da. Irakurleak gonbidatzen ditugunean edozein etor daiteke" dio Villegasek.

Irakurgaiak aukeratzekoan "egungo idazleak ezagutu, klasikoetara bueltatu eta liburutegian duten aukera" izaten da kontuan. Baina taldean adin, irakurle handiak eta ez handiak, literatura gustu eta irakurketarako erraztasun eta interes aniztasuna dagoenez, guztiak kontentuz izaten saiatzen da. Hala, jatorri ezberdinetako idazleak, literatura ildo eta estilo ezberdinetakoak, poesia, komikia, bertako literatura eta beste izan dute irakurgai orain arte.

Eta filmerik bada, hura ikusi ere.

Izan dira idazle baten obra ezberdinak irakurri dituzten aldiak eta tertulia aberasgarriak eskaini dituztenak. Garcia Marquez, Vargas Llosa eta Toty Martinez de Lezearen lanarekin egin dute hori.

### Jarduerak

Irurtzungo irakurle taldearekin izan diren idazleak dira: Patxi Irurtzun *Atrapados en el Paraíso* liburuarekin, UNEDeko zuzendari Martin Nogales *La mujer de Roma* idatziarekin edo Mikel Zuza *Cronicas Irreales del Reyno de Navarra* lanarekin. Noha Gordonen *La Bodega* eta Luisa Etxenikeren *Vino* liburuarekin ardoaren eta literaturaren arteko ezkontza egin dute.

+ [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Altsasukoa, irakurle talde beteranoena

Altsasuko emakume literatur zaleak elkartzen dituen irakurle taldeak 23 bat urte ditu. Gaur egun 15 emakume elkartzen dira. Lastaila eta garagarri bitartean urtean, hileko 3. edo 4. asteazkenean, 18:00etan Iortia kultur guneko areto txikian elkartzen dira. Interesa duenak udal liburutegitik pasa daiteke eta han irakurri beharreko liburu jaso-

ko du, hizketaldiaren egunean bueltatu behar dena.

Irakurle taldeak ikasturte honetan dagoeneko bi topaketa egin ditu. Irailaren 30ean Txaro Begue idazle nafarra Altsasun izan zen. Irakurle taldekoekin batera bere *20 voces* liburuari buruz aritu ziren hizketan. Atzo, berriz, Christopher Morleyren *La libreria ambulante* lanaz hizketatu ziren.



Idazle altsasuar baten bisita espero dute azaroaren 18rako: Jose Miguel Boal. *En los pliegues del viento* liburu idatzi du. Nobelakopasari-

te batzuk Sakanan kokatuak daude. Abenduaren 16rako Yasmina Khadaren *El atentado* liburu idatzen da hizpidea ematen duena.

## Literatura-hitzordua Olatzagutian

Olatzagutiko liburutegiak literatura tertulia antolatu du azaroaren 13rako, ostirala, 21:00etan. Liburutegian bertan elkartzeko gonbitea luzatu diete olaztiarrei. Literaturaren abararen elkartu nahi dutenek Lionel Shriverren *Tenemos que hablar de Kevin* liburu irakurria izan beharko dute.



## Etxarriko irakurle taldearen hirugarren ikasturtea

Ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian Irene Nemiroskyren *Arimen maisua* liburuaz hizketatuko dira

Irakurzale euskaldun etxarriar irakurri honetan aurrenekoz heldu den ostegunetan elkartuko dira. Nemirosky idazle ukrainarraren *Arimen maisua* (Alberdania, 2009) liburu

irakurritako joanen dira hitzordura eta hark sortutako iritziak partekatuko dituzte. Aurreko urtean bezala, oinarritzko gida bat lagun, saio bakoitzean taldeko kide bat izanen da liburu taldean aurkezteaz eta saioa bideratzeaz arduratuko dena. Taldea irekia da eta nahi duenak parte hartu dezake.

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 13%	euria: 28%	euria: 40%	euria: 38%	euria: 63%	euria: 70%
Min: 5 Max: 19	Min: 10 Max: 17	Min: 9 Max: 13	Min: 10 Max: 14	Min: 9 Max: 13	Min: 8 Max: 13	Min: 5 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	20.5	0.5	4.7
Etxarri A.	21	-2.5	7.4
Altsasu	19.5	-1	9.6
Aralar	13.9	-1.3	6.9
Urbasa	14.5	-4	12.8

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
27	3	11	19

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

## Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

# >> 11 galdera

## Lierni Galarraga Lekuona

Sakanako hezkuntzako prestakuntza arduraduna

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



# egutegi pertsonalizatuak

2017

poltsikokoak

kolorez, 300 g papera, orri batekoak 84 x 55 mm eta bikotzak plastifikatzea aukeran

2016

mahai gaineko egutegiak

Kolorez, 300 g paperean, piramide formatoan trokelatuta (210x100 mm)

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

Bierriko bazkideentzat %5eko deskontua

**1. Sakanako kultura eta natura ondarea hezkuntzan txertatzeko beharra nolaz sortu zen?**

Bide askoren bidegurutzea da hau. Sakanako bederatzi eskolek, Sortzenekin batera, ibarreko curriculumak lantzen asteko egitasmoa genuen. Gure ezagutza zabaltzeko behar bat sumatzen genuen. Bestetik, Sakanako Plan Estrategikoaren ildoak kontuan hartuta, Sakanako garapen agente Iker Manterola etorri zen Albaolakoak ate joka zeudela esanez.

**2. Zein hausnarketa egin zenuten?**

Albaolakoak ongi dago, garrantzitsua da. Baina guk gureari balioa eman behar diogu. Eta, horretarako, ezagutza garrantzitsua da. Eta irakasleen prestakuntzarako ikastaroak antolatzeke aukera zegoenez...

**3. Irakasleendako ikastaroa?**

Bai. Maila guztietako irakasleendako izan da aurreneko hau. Beste zenbait profesional ere gonbidatu ditugu. Nahi dugulako eskolei ere gai hauei guztiei lotutako aukerak zabaltzea. Esaterako: zaldiz ibilaldiak, haurrekin basoan jarduerak egiteko aukerak...

**4. Nolako ikastaroa izan zen?**

Nik garbi nuen ikastaro ezberdina izan behar zuela. Horregatik, mendi irteeretan oinarritutako metodologia aukeratu genuen.

Irakasleok, gela barruan, power point batekin pertsona bat hizketan eta gu entzuten egoteaz asper-tuta gaude.

**5. Zein eskolotako irakasleek parte hartu zuten?**

Ikastetxe guztietako norbait egotea lortu da: eskoletakoak, ikastoletakoak, institutuetakoak parte hartu dute. Irurtzungoek interesa azaldu zuten baina oraingoan kanpoan gelditu zaizkigu.

**6. Ikastaroa noiz hasi zen?**

Irailaren 16an hasi genuen eta lastailaren 14an despiditu genuen. Hiru orduko bost prestakuntza saio izan dira.

**7. Zein gai landu dira?**

Sakanako geologia, arkeologia, Erdi Aroko despoblaturak, Done Jakue bidea, komunalen kudeaketa, Bernoako galtzada, erromatar galtzada, erromatarren garaia, megalitoak, baso kudeaketa... Ikastaroaren altxorra izan da, gaiaz benetan maiteminduta dagoen jendea aritu da guri haien inguruan erakusten.

**8. Beraz, errepikatzeke modukoa?**

Bai. Esker on asko jaso dugu. Hemen ere hobetzeko gauzak daude. Aurtengo aurrekontua itxia da baina udaberriari baliteke beste zerbait antolatzea. Onartuak izan ez diren horiek guztiak ate joka dauzkat. Ikusiko da zein motakoa eta nola; gai bati helduta edo orokor xamarra.

**9. Nola egiten da kultura eta natura ondarearen berri eskolara eramateko?**

Bide asko elkartu dira eta oraindik ere asmo asko daude. Hemen go gai horiek guztiak eskoletara nola eraman unibertsitatearekin landu nahi dugu ere. Horren guztia emaitza litzateke Interneten plataforma aberats bat sortzea non edozein irakasle edo pertsonak Sakanari buruzko zukua atara dezakeen. Horretan gaude. Interesgarria litzateke horren inguruan irakasleen lantalde bat sortzea. Ez dadila aurten egindako zerbait eta gero zintzilik gelditzen dena.

**10. Dagoeneko irakasleren bat hasiko zen jasotakoa transmititzen, ez?**

Seguru baietz. Aurretik ere jendea horretan ari da. Badakigu. Baina batzuk "hau halako gaiarekin lotuko dut" esan zuten. Edo irteerak egiterakoan jendeak ez daki oso ondo nora joan edo zer egin eta hemen ideia asko sortu dira.

**11. Zergatik dago bertako ondarea ezagutu beharra?**

Ezagutzeak maitatzea dakarrelako. Eta gure eskualdea maite badugu saiatuko garela bertan gure ekonomia suspertzen eta etorkizun on bat garatzen. Guk irakaskale gisa horretan ardura bat dugula uste dugu. Gurea estimatzen ez badugu, gainerakoa ere zaila izanen da, ezta?

Informazio gehiago 9. orrian.